



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



DENA DA GEZURRA

XABIER LÓPEZ ASKASIBARENA

2012KO HAURRENDAKO ANTZERKI TESTU LEHIAKETAREN IRABAZLEA
OBRA GANADORA DEL CONCURSO DE TEXTOS TEATRALES DIRIGIDOS A PÚBLICO INFANTIL EN 2012

XABIER LÓPEZ ASKASIBAR

Dena da gezurra

Antzerki-lana

Azala: Oier Zuñiga

Pertsonaiak:

JULEN

GAZTEA

ZAHARRA

MADDI

AMA

Idazlearen oharrak: Hamar urte baino gehiagoko haurrengan pentsatuz sortua izan da honako testua. Eszena bakoitzaren bukaera eta hurrengoaren hasiera igualak dira; aukera estilistikoa da, telesail bateko kapituluak izango balira bezala.

(Eszenatokia ilunpetan dago, pantaila erraldoian proiektatutako pelikula modukoa bakarrik dago ikusgai. Bertan, telebistako imajinak abiadura bizian ikus daitezke; baina, ez dira zehatz-mehatz zentzuzko segida duten irudiak ageri, telebistan egunero gure begien aurrean, azaltzen zaizkigun milaka irudi zorabiagarri horien nahasketa bortitza baizik. Aldi berean, irudiekin bat ez datorren musika karrakari eta errepikakorra entzun daiteke, musika elektronikoren bat izango litzateke egokiena, fabrika baten soinu astuna gogora ekar lezakeena.

Pixkanaka-pixkanaka fluoreszenteen argi hotzak hasiko du taula argitzen, pantailako imajinak desagertuko dira, oihal beteko planoan aurrez aurre azalduko den neskato baten aurpegi erraldoiari lekua uzteko. Hamahiru bat urteko neska pinpirina da, aurpegi atsegina duten horietakoa, baina janzkera eta orrazkera oso bereziak ditu, etorkizuneko garai batekoak dirudite baina arrotzak suertatu gabe. Ezin dugu neskaren ahotsa entzun musikak ozen jarraitzen du eta; hala ere, egiten dituen keinu adierazkorrengatik, badirudi norbaitekin hizketan ari dela. Musikaren bolumena gradualki jaisten joango da, eta hori gertatzearekin batera, argi fluoreszenteek eszenatokia erabat argituko dute eta non gauden ikusi ahal izango da.

Julen, gure protagonistaren, logela da. Gela berezia dugu honako hau: ospitalea bezain aseptikoa; ez du apenas dekoraziorik, diseinu bitxiko ohea, aulkia eta mahaia baino ez; kolore zuriz eta metalikoz hornitua dago dena; izarrez betetako estaturen bateko bandera ohe ondoko paretan eskegirik. Hamahiru bat urteko mutikoa ohean etzanda dago alferkerian; zuri eta metal koloreko kirol arropaz, inguruko espazioarekin bat egiten du kameleoi gisa. Bera da, noski, pantailako neskarekin hizketan ari dena, horretarako buruari atxikita kamara ia ikusezina du bere aurpegira bideratua, neskak Julenen aurpegia ikus dezan.

Gela osoa esfera erdi baten barruan kokatuta dago, erabat gardena; alabaina, ez du kalera ematen eta erabat isolatua dago. Oraintxe ohar gaitezke, imajinatzen genuen pantaila ez dela existitzen, irudiak kristal moduko pareta obalatu horietan islatzen direlarik. Gazteak hizketan baino, eztabaida sutsuan ari dira.)

MADDI.- Esna hadi, txotxolo hori, tontotuta al hago? Ez al haiz konturatu oraindik? Joko birtualaren azkeneko fasean akats mordoak zagok, bai? Ulertu al duk? (Mutikoak bere burugogorkerian kasu handirik egiten ez dionez, hasperen egingo du eta bere buruari hitz eginez.) Ez zakiat nik ba. (Juleni adiskidetsu azaltzen saiatu nahian.) Entzun, Julen, beharrezkoa duk jokoaren hutsune horiek salbatzea. Ze, ezin duk irabazi androideen mugimendu motelengatik. Barraskiloak ziruditek!

JULEN.- Dorpea haiz eta ez dakin erabiltzen.

MADDI.- Bai, zera! Egoskorra haiz gero, e! (Juleni koipea eman ez.) Bideojokoen istorioa originala duk, bai... titaniozko androideak Marte konkistatu nahian, tope, txo, ez duk nolanhiko abentura, ez. (Maddi sasijakintsua izango da bere hainbat esalditan.) O, benetan bitxia! Jokalariak txunditzeko moduko denbora-pasa. Klasikoa baina berritzailea aldi berean, nahiko "vintage" edo.

JULEN.- A ze pasada, bai, ezta?

MADDI.- (Diplomatiko.) Dena dela, onartu beharko, gauza asko hobetzeke daudela: koloreak motelegiak dituk; jokoaren maila bakoitzeko usain ezberdinak ez dituk ongi antzematen; ezinezkoa duk pantaila barruan jokatu, eta horrela puntuak galtzen ditiagu beste proiektuekin alderatuta... Gainera, odol isuri etengabe hori nazkagarria duk. Puf! Odola eta odola eta odola alde guztietatik, ziprizzintzen duen bakoitzean blai uzten hau, gero ezinezkoa duk arropatik orbainak kentzea. (Nazka aurpegia jarritz.) Gurasoak sutan jartzeko modukoa! Bai? (Julenekin atsegin izan nahian.) Sarean salgai jarri aurretik nire moldaketak begiratu, mese, mese... (Emozioaz hitz egiten hasiko da.) Grafiko berrituak ditiat, pasada txo, ze 3 dimentsioak zaharkituak geratu dituk eta...

JULEN.- (Eten egingo du, Maddiren ahotsa imitatuz.) "Bai, grafikoak, moldaketak, isuria, orbainak... Mese, mese...". Pedante hutsa haiz!

MADDI.- (Haserre eta harritua era berean.) Pedantea, ni? Pedantea, ni? Bai zera! Baina, baina, ba al dakik zer esan nahi duen hitz horrek?

JULEN.- Ideiarik ez, telebistan entzun ninan.

MADDI.- A! Esaten nian ba nik... babalorea.

JULEN.- (Burlati.) Hik azalduko al didan moñoña?

MADDI.- (Erdeinu keinuaz.) Baita zera ere, ez diat hirekin denborarik galduko. (Lasaitu nahian, Julenekin helduen arteko elkarrizketa bat izaten saiatuko da.) Begira, txo, bion artean lana egin eta nota hobea lor zezakeagu klaseko proiektuan. Esan, ez al huen proiektu onenaren saria irabazi nahi? Ez al huen eskolako ospetsu eta ezagunena izan nahi? Bion artean lor zezakeagu.

JULEN.- Et, et, et... ez dinat horrelakorik sekula esan. Noiz esan dut nik ba klaseko ospetsuena izan nahi dudarik?

MADDI.- Hara, bestea. (Haserre.) Ba, nik bai esan nian. Oraingo honetan nota bikaina lortzen badiat, goi mailako unibertsitate batean sartzeko aukera izango diat. Nire bizitzako ametsa duk Millennium unibertsitatara joatea.

JULEN.- Unibertsitatea? Eta zer ikusirik du horrek nirekin?

MADDI.- (Marmarrean.) Gure adinean puntuazio gorenak lortzeko, taldeka egindako lana izan behar dik. Banakakoek ez ditek apenas kontatzen... orain duk aukera, bestela 18 urte bete arte itxaron beharko diat. Jende arruntarekin batera. (Bere golkorako.) Ez diat ulertzen, gaur egun ez dik inork taldeka lan egiten, eta hori eskatzea ere.

JULEN.- (Berekiko.) Jende arrunta... (Harriduraz ahoa zabal-zabalik duela.) A, gibelandi halakoa! Jokoa hiretzat nahi dun, e? Argi zagon dena, orain ulertzen dinat, benetan maltzurra haiz... (Tragiko jarritz, ahotsa nabarmen aldatuko du eta imintzioka hasiko da txantxetan.) Neure ideia bikainak erabili nahi ditun kurtsoa gainditzeko... O! ... goi mailako unibertsitate batean

sartzeko... O! O! ... eskolako ospetsuena izateko... manipulazioaren menpe bizi naun... emakume baten

MADDI.- Etzak txotxolokeriarik esan, babo halakoa! Akats horiekin ikasgaia gaindituko duala uste al duk? Jai daukak!

JULEN.- Baboa, e? (Maddi haserretu nahian.) Ba, hi txolina, marijakintsu, "printzesita". (Batbatean, erreka baten ur jariora entzun daiteke, logelan bertan ur-jauzia balego bezala. Maddik errieta egin behar dionean Julenek geldiarazi egingo du.) A! Barkatu, Maddi, utzi egin behar haut. Deika ari zaizkidan.

MADDI.- Hau kasualidadea! Justu orain! Ez dakik hik ezer... (Atseginago, zirikatzea haien eguneroko jolasa izango balitz bezala.) Ados, kontuan izan esandakoa eta hitz egingo diagu. Aio, txotxolo.

JULEN.- Bai, aio, printzesa.

MADDI.- Emango diat bat...

JULEN.- Aio pelaio! ITZALI.

(Julenen barreen artean Maddiren irudia desagertu egingo da, pantailako argia itzaliz. Julenek kamara deskonektatu egingo du, baina mikrofono txikia aho ondoan erantsita mantenduko du. Aparatu teknologikoak bere gorputz atalen parte dira, ciborg baten moduan. Dena dela, agertzen diren aparatuak ez dira une horretan dagoen puntapuntako teknologia, egunerokotasunean bizitzan normaltasunez maneiatzen direnak baizik.)

JULEN.- (Ozen.) AMA.

(Erreka soinua eten egin da eta logelan zerutik eroritako argi irrealak ageri da, batbatean argi horren barruan amaren holograma antzeman daiteke; Julenek ama ikus dezake, baina amak bera ez. Hala eta guztiz ere, Julen ohetik jaiki egingo da eta ilea eskuaz orraztuko du, ia oharkabean, amaren errietaren beldur edo.

Amak exekutibo arropa dotorea darama, baina azken modako jantzian; nahiko "kursia" da bere hitz egiteko modua eta, bere jarrera ikusita, patxaran pare bat hartu dituela ematen du. Telefono aparatuak ez ditugu ikusiko, garai honetan gorputzarekin bat egin dutelako dagoeneko teknologia guztiek.)

JULEN.- Kaixo, ama.

AMA.- Julentxo, maitea. Zer moduz dena?

JULEN.- Hementxe.

AMA.- Non zaude orain, txiki? (Miopea balitz bezala begiak ireki eta itxiz.) Zein arraro, ezin zaitut ongi ikusi. Ai ene, ez ote nintzen itsutuko? (Gehiegikerian hasiko dela.) Ai, zergatik niri? Zergatik niri?

JULEN.- (Pazientziaz.) Ama... zure telefonoa modelo zaharra da, ezin nauzu ikusi, ez du funtzio hori instalatua.

AMA.- (Alai.) A, egia da. Ez nuen gogoratzen! Berria erosi beharko dut.

JULEN.- Ama... aspaldi erosi zenuen, baina oraindik ez duzu estreinatu. Tramankulu berrien gelan dago. (Bere buruari.) Beste hainbat tramankulu eta traste bezalaxe, kotoizko hodei artifizialak sortzeko makina eta amaierarik ez duen eskailera eramangarriarekin batera egongo da.

AMA.- (Azken esaldia entzun ez duela.) A, bai? Bai, bai... hori ere egia da, aspaldi erosi nuen. (Barre egingo du.) Bueno, ba orduan... (Eskua begien gainean jarriko du, bisera moduan, urrutira begiratuko balu bezala.) ... non zaudeee... eoooo... non zaudeee... maiteaaa?

JULEN.- (Asper-asper eginda.) Logelan, oheratzeaz.

AMA.- (Normaltasunera bueltatuz.) Ongi da, potxoli. Barkatu, maitea, berandutu egin zaigu gaur ere. Hau aztoramena! Kar, kar, kar! Afaltzen geratu behar izan dut laneko nagusiekin, badakizu nolakoak diren enpresari berritsu hauek. Beti txutxumutxuka! Beti kuxkuxeatzen! Kar, kar, kar! Zelako txisteak kontatzen dituzten! Kar, kar, kar! Zer esaten dio arrain batek beste bati?

(Ahoaz arrainek egiten duten keinua egingo du komikoki eta

8 barrez lehertzen hasiko da.) Beste bat, beste bat kontatuko dizut. Zergatik dute ipurdian zuloa txerriek? Zuloa bizkarrean izango balute itsulapikoak izango liratekeelako. Ulertu al duzu? Kar, kar, kar!

(Gehiegizko keinuak eginez.)

Zuloa... txerria... itsulapikoa... Kar, kar, kar!

(Inork erantzuten ez duela ikusita, bere ingurura begiratzen hasiko da; despistatuta ez daki non dagoen eta azkenean aztoratuta bere buruarekin izutuko da.) AI! (Semearekin hizketan ari dela gogoratuko du bat-batean. Lasaitu ondoren, serioago jarritz.) Zerbait afalduko zenuen ala, zerutxo?

JULEN.- Bai, hozkailuan bazegoen zerbait eta hura berotu dut.

AMA.- Ongi da, aingerutxo, oi, oi, oi, maitea, zein guapoa den nire semetxoa, munduko semerik guapoena.

JULEN.- (Bere buruari, haserre.) Baina ezin nau ikusi eta. (Ilea berriz amorrus endredatzen du, amarekin haserre.)

AMA.- (Ezertaz ohartu gabe.) Eta etxeko lanak?

JULEN.- Denak eginda. Mateko eragiketak zailak ziren... irakasleari galdetu beharko diot... ez dakit zuzen bukatu ditudan baina...

AMA.- (Kasu handirik egiten ari ez zaiola agerian utziko du; izan ere, ispilu txiki batean bere burua begiratzeko duen bitartean hitz egiten hasiko da, azken finean, makillajea eta orrazkera behar bezala dituela begiratzeko arduratuagoa baitago, bere semearekin hitz egiteaz baino.) Bai, bai. Hobe duzu ulertzen ez dituzun fisikako ariketa horiek irakasleari galdetzea, bai.

JULEN.- Baina ama, fisikakoak ez...

AMA.- (Semearen hitzak etenez.) Bai, bai, fisikakoak... (Ispilu gorde ondoren, erlojua begiratu du.) Ai, utzi egin behar zaitut, polita. Komunera joateko aitzakiarekin altxatu naiz mahaitik eta txiza gainean egin dudala usteko dute dagoeneko. (Ama barrezka hasi da, barre txolinaz, baina bera bakarrik ari dela konturatzean, utzi egin dio barre egiteari. Apur bat aztoratuta.) Beno... e... ez dut uste oso berandu bueltatuko naizenik, deskantsatu, bai maitea? Agur.

JULEN.- Ama.

AMA.- Bai, maitea?

JULEN.- Eta, aita?

AMA.- (Eguraldiaren iragarpena egiten egongo balitz bezala, mapa ikusezin batean gora eta behera Shangai seinatuz.) Ai, laztana, laztantxo, badakizu Shangain dagoela, ezta? Eta Shan-gai, hemendik oso urruti kokatuta dago...

JULEN.- (Amaren txorakeriei muzin eginez.) Ama, bai, jakina... badakit Shangain dagoela... nola ez dut jakingo ba... baina, noiz itzuliko da?

AMA.- (Julenek xelebrekeriaren bat esan izan balu bezala.) Ui, ui, ui, ui... auskalo... ui, ui, ui, ui... negozio ugari ditu han, badakizu. Zure aita enpresari garrantzitsua da! SONA HANDIKO GIZONA! Kar, kar, kar! (Horrenbeste barre egin eta gero eztulka hasiko da eta ia itoko da; dibertigarria izango da ikuslearentzat bere mugimenduak eta jartzen dituen gehiegizko aurpegiak, Julenentzat ez bezala.) Ai, ai! Ene ama maitea! Itotzear egon naiz ia! Heriotzatik gertu!

Zure aita... bai, bai... zure aita hurrengo hilabeterako hemen izango dela uste dut... ez badu lehenago New Yorketik pasa behar, noski. (Supituki zerbait bururatuko zaio eta askatasunaren estatuaren itxura hartuko du.) Nor naiz? Nor naiz? (Bere semeak erantzuten ez duela ikusita.) Benga, asmatu, asmatu.

(Semea galdetu diona bat-batean gogoratu.)

JULEN.- Jo, ez dakidala, ama.

AMA.- Begiratu ongi, oso argi dago. (Seinalatuz begi-bistakoa dena ageriago utziz.) Saia zaitez, oso erraza da eta!

JULEN.- (Hasperen eginez.) Askatasunaren estatua?

AMA.- Bai! (Txalo txiki eta azkarrak emanez saltoka hasiko da pozaren pozez.) Ongi, ongi, asmatu duzu! (Argi irrealaren barruan jira eta bira hasiko da, besoak igotzen eta jaisten dituela.) Nire semetxoa azkarrena da! Nire semetxoa azkarrena da! (Telebistako aurkezle

10 baten ahotsa jarriz mikrofono ikusezina eskuetan duela.) Eta gure gaurko irabazlea: (Danbor hotsa eginez.) JULEN da. Pozik al zaude?

JULEN.- (Zer esan ez dakiela.) Bai?

AMA.-

(Bere irudimenean soilik existitzen den ikusleria xaxatuz, neurritz gaineko mugimenduak egiten hasiko da.)

TXALOAK, TXALOAK. Oe, oe, oe, oe... (Bere onera etorritz, nahiko despistatua.) Zeri buruz ari ginen hizketan?

JULEN.- (Nazka-nazka eginda.) Aitaz.

AMA.- A, egia da! Zure aita horren lanpetuta dabil! Hots egingo diot, nahi baduzu. (Bere poltsikoak arakatzen hasiko da eta telefonoa topatzen ez duenez urduritu egingo da.) Non utzi dut telefonoa? Ez al zidaten lapurtuko! Jakina. Nola ez? Beti, beti esaten diet jatetxe honetan oso tipo arraroak daudela, baina ez didate kasu zipitzik ere egiten. Azkenean horrelakoak gerta...tu... (Barre tontoaz, aurpegian duen mikroa sinalatuz.) A, zurekin ari naiz! Kar, kar, kar! (Kantatzen hitz egingo du.) Ez didate lapurtu, kar, kar, kar, zurekin ari naiz eta... lapurtu ez... zurekin...

JULEN.- (Ezer lortuko ez duelakoan.) Ez, ez, utzi, ez deitu, mesedez. Atzo bere mezua jaso nuen e-postan. Opari izugarria erosi omen dit, igual itzuli aurretik bidaliko du. (Ahopeka.) Gainera zure zain egongo dira mahaian.

AMA.- (Bere abesti inprobisatuan galduta zirudien arren, semeak esandakoa entzun duela.) Ui! Arrazoiak daukazu! Egia da, bai, komuneko papera agortu egin dela usteko dute eta horregatik ez naizela bueltatu... (Barrezka hasi da berriz ere, baina Julenek ez duenez barrerik egiten, isildu egin da.) Beno... e... bihar arte, polita. (Komikoki eskuekin muxuak bidaltzen hasiko da telefonotik, hori egin eta gero, soinekoa berriz dotore jarri eta ama serioaren papera egiten saiatuko da.) Ez badugu gosarian elkar ikusten, zereal guztiak jan itzazu, bai Julentxo? Hartz itxura duten zereal horiek guztiak, bai? Txokolatezko hartzatxo superbitaminadunak.

JULEN.- Bai, ama. Agur.

AMA.- Agur, bai, bestela zera pentsatuko dute ez banaiz berehala bueltatzen... (Barre egiten hastera doa, baina semea ikusten ez duen arren, nabaritu du berari ez diola grazia izpirik egiten.) Agur, maitea.

JULEN.- Agur. ITZALI. (Azkeneko hitz hau esaten duenean, argia amaren irudiarekin desagertuko da.) (Burlati ama imitatzen.) "Gainean egin dudala usteko dute dagoeneko". Egia izango balitz sikiera, orduan barre egingo genikek, bai. Beti kontu bera. "Zereal guztiak jan itzazu". Aspaldi utzi nioan zerealak jateari, kafe kikara erraldoiak hartzen ditiat, (Orro egiten hasiko da.) Sutan jartzen nauten katilukada erraldoiak... baina bera ez duk konturatu ere egin, beti zabilek horren lanpetuta. Buff. (Julenek, orain arte konturatu ez bagara ere, kable antzeko batzuk daramatza erantsita eskuetan, eta inolako teklaturik erabili gabe idatz dezake. Hasperen egin eta gero.) EGUNEROKOA. (Kristalezko horman argia piztuko da berriro ere, Julenek bere Egunerokoa idatz dezan. Hatzei eragiten dien heinean testua pantailan agertuko da; hala ere, ozen esango ditu bere hitzok, izan ere, dena telefonozko mezuen antzera idatzita egongo da,) Martxoarn 3a, astarta.

Egunroko maita:

Gaur oso gun asprgarria izan duk. Gobrnuak astan 2tan zarritako prsntziatzko klasak oso astunak egitn zaizkidak :(nahiago nikk dnak txtik jasoko bagnitu. Erosoagoa baduk, bhintzt. Gainra, irakaslk ztitk skolan egon nahi izatn, irttko gogo nabari zaiek bti. KKnarruak! Bst ikaskidkin egon naitkk, bhintzt. Koadrila 2kaina osatn diagu: goiztn dnok logura aurpgiz joatn gaituk-_- ta barr gitn diagu horrn kontura :[) ; builaka hastn gaituk glara sartzan ta lkarri kontatn zioagu zr nolako trsna brria rosi dugun sarean. Baina lagun lagun z gaituk, agian Maddi ñ_ñ ta biok bakarrik.

Bakik klas barruan ezin ditugula makinak izan, sarrran konfisktzn zizkigutk aparatu lktroniko ghienak, bti bzala. Ikaskid 1ek tlfnaz ikaskta-burua mhatxatu zuentik oso zorrotzak dituk "arazo" honkin. Ze pasada! Alukria galanta! :P Horrgatik ztiat ia ezr eramatn, bidan muska entzutkoa ta ezr gutxi ghiago. Antzinako kontuetara bueltatu nahi izata ere! (Sututa bat-batean ohe gainean zutik jarriko da salto eginez, idazteari utziz segundo batez.) Gu geu gaituk teknologia, gure baitan zaudek! Etorkizuna geure esku zagok! Bai! (Bere buruaz barre egingo du, ondoren lasaituko da eta, ohean eseriz, idazteari ekingo dio berriro.)

MatMtkakoa pasa gin duk etxko lankin, ingniarritza aerospaziala ikasi nahi nuela san niontik, bst inori baino arikta ghiago bidaltzn zizkidak niri. Baleki, galdtutakoan, burura torritako aurrnko gauza san niola! Puf! O_o Dantzaria izan nahi nuela san izan banio, egunro luzatz-ariktak gitn egongo ninduan... 1, 2, 1, 2... Eskuekin bhatz puntak ukitu art! Nekea ez da existitzen! Auskl, heldu hauek zoratuta zaudk. @_@

Horz gain, Maddi nahiko astun zabilk 2dojken kontua dla ta, etzakiat zrgtk duen horrnbst intrs klasan 2dalitako proiektuan laguntzko, unibrtsitatkoa aitzakia galanta duk... egia duk bra ni baino trbagoa dela gauza hauetan, baina... ztzioat skula onartuko!

(Bat-batean pantailako irudia distortsionatzen hasiko da; Julen idazten saiatuko den arren, ez du ezer lortuko, argiak bere intentsitatea galduko du eta fluoreszenteak dirdir etengabean hasiko dira.)

JULEN.- Zer demontre gertatzen ari da? (Argien dir-dir hori gero eta bortitzagoa izango da, azkenean itzalaldia etortzen den arte.) (Julen lasaitasuna galdu gabe, pertsona heldu bat balitz bezala.) Kaka putza, gaur falta genuena! (Aginte tonuan.) EMERGENTZIAZKO ARGIA. (Argi urdin motel batzuk piztuko dira logela osoan, hala ere, logela dezente argituko dutenak. Julen ahoan duen mikrofono-telefono berezitik deitzen saiatuko da.) 24 ORDUKO ZERBITZU TEKNIKOA (Seinalearen zain egongo da Julen, baina ez du ezer entzungo.) Ze gauza arraroa, honek ere ez dik funtzionatzen. Hau duk marka hau! Etxera etorri naizenean ez zirudian ekaitz elektrikorik zegoenik. (Berririo saiatuz.) 24 ORDUKO ZERBITZU TEKNIKOA (Zain geratuko da baina ez da ezer entzungo.) Alferrik. Ez zakiat zertarako ordaintzen diogun dirutza estatu globalari, gero energiak ez badu behar bezala funtzionatzen. Imajinatzen diat urbanizazioko zaindariak berehala mezu bat bidaliko duela barneko saretik, minutu batzuk barru dena konponduko dela esanez. Hau desastrea! Lotara joan beharko diat ezertan jokatu gabe... karreratan errekorra gainditu gabe gaur. Demontre!

(Une horretan burrunba izugarria entzungo da, eta mutikoa altxatu egingo da zarata horiek nondik datozen ikusi nahian. Baina ez dauka batere argi; hori dela eta, izutzen hasiko da. Ez dago ohituta kontrolatzen ez dituen egoeretara, suertatzen diren arazo guztiei patxadatsu aurre egiteko gai izan da beti, txikitatik bere kabuz arazoak konpontzeko ardura izan du.) JULEN.- Zer arraio gertatzen da hemen? (Zarataren intentsitateak gora egingo du. Julen bere burua lasaitu nahian.) Eskerrak gela hau erabat isolatua dagoen, kanpotik euli bat bera ere sartu ezin dela, bestela... bestela, pastela... kakati hutsa nauk... hiltzaile maltzurra ni akabatzen noiz etorriko den zain dagoen kakontzia. Ulu, ulu, ulu! Otsoa, otsoa datorrela! Azkar, ihes egin txanogorritxo!

(Gogorik gabe barre egingo du. Berehala eztanda izugarria entzungo da eta ke artean lurrean zuloa egin dela deskubrituko dugu. Julen ohe azpian ezkutatuko da izututa eta belarrian erantsitako telefonoa erabiltzen saiatuko da.)

JULEN.- POLIZIA. POLIZIA. Ez zabilek, kontxo, benetan behar ditugunean... ez zagok modurik...

(Zulotik, ke artean, itzalak eta hotsak sumatuko dira; Julen ohe azpitik aterako da uzkur, eta erdi esfera itxi horretan dagoen ate ikusezinerara gerturatuko da.)

JULEN.- IREKI.

(Baina atea ez da irekiko. Soinuak ozenago bihurtu ahala Julenen urduritasuna areagotuz joango da eta paretako material garden hura ukabilekin kolpatzen hasiko da bortizki.)

JULEN.- IREKI. Kakazaharra. Ireki hadi behingoz, kontxo!

ZAHARRA.- Alferrik, hautsiezina duk.

(Zulo barnetik bi tipo aterako dira, aurpegiak marrazki bizidunetako pertsonaien maskara deigarri batzuez estalita eta arropa zarpailak jantzita. Hitz egiten duenak "Nagusi" itxura edukiko du; izan ere, aginduak berak emango ditu. Gainera, atera den bigarren tipoa baino zaharragoa izango da, eta horrek nabarmen baldintzatuko ditu pertsonaien arteko erlazioak.

Julen paretaren kontra zur eta lur geratu da, mugitu ezinik estatua gisa. Horrelako gauzak telebistan bakarrik ikusi ditu, ez zekien benetakoak izan zitezkeenik, biolentzia zeharka pasatzen da bere bizitzatik, gehienetan pantaila atzean.)

ZAHARRA.- Gabon, mutiko. (Gazteari agindua emanez.) Hartu!

(Gaztea, zalantzati hasieran, segurtasunez joango da gero Julenengana. Azken honek, ihes egitekoa egin duen arren, ez du aukerarik izango; izan ere, gazteak berehala harrapatuko du Julen, lurraren kontra botaz. Gaztea indarrez eusten ari zaio, Juleni min ez ematen saiatuko den arren.)

ZAHARRA.- Lotuzak behingoz.

(Gazteak gelan aurkitzen dituen kable batzuekin lotuko dizkio Juleni hankak eta eskumuturrak; ohe gaineko bandera izardunaz estaliko dio ahoa, Julenek oihu egin ez dezan. Nahiz eta Julen orain arte paralizatua egon den, une horretan urduri mugitzen hasiko da, bat-batean esnatu izan balitz bezala; ongi lotu dizkiote gorputz-adarrak, ordea, eta apenas arrastaka ibil daiteke. Gaztearen atzaparretatik ihes egin nahian dabil, baina gaztea indartsuagoa dela konturatzen denean, ezinean negarrez hasiko da.)

GAZTEA.- (Jatorra.) Egon hadi geldi, osterantzean zauriak egingo dituk eskumuturretan. (Bere buruari marmarrean.) Beste zerbait ekarri behar genuen eskuak lotzeko, ezin gara beti inprobisatzen ibili.

ZAHARRA.- (Gela trankil-trankil begiratzen ari dela. Juleni.) Mukizu, isil hadi. (Julenek negar egiteari uzten ez dionez, haserre itxurak egingo ditu.) Kagoen, ume txiki bat dirudik. Isil hadi, dedion! (Gazteari aginduz.) Hi, emaiok isiltzeko botika. (Gaztea Juleni eskuez eusten ari zaiola, badirudi ez dituela bere nagusiaren aginduak ulertu. Orain bai zaharrak haserre hitz egingo dio.) Gorra al hago? Ai, ze pattala haizen! Beti berdin... Ezin diagu denborarik galdu! (Nazkatuta.) Neuk egin behar dena, jo!

(Zaharra gerturatuko zaie haserre eta mutikoa begiekin lastima transmititzen saiatuko da; ez du zaharra kikilduko baina, Julenen beldur aurpegiak. Azkenean mutikoari indar gutxiko ukabilkada emango dio aurpegian, gaztearen harridura keinuaren aurrean. Julenek konortea galduko du gaztearen besoetan.)

GAZTEA.- (Julen kontu handiz lurrean utziko du. Haserre ahotsaz zaharrari.) Ez zen beharrezkoa.

ZAHARRA.- Agian ez, baina gorroto ditiat ume negartiak. Ai, ez hintzateke horren inuzentea izan behar! Gainera, lasai, suabe-suabe eman zioat. Mengel hutsa! Ez dik markarik izango, konortea galdu besterik ez. Kar, kar, kar!

GAZTEA.- Ez zen beharrezkoa, hala ere.

ZAHARRA.- En fin, utzi berriketak, lana diagu oraindik.

(Zaharrak marrazki bizidunetako maskara kenduko du. Horren azpian goizegi zaharkitutako gizon bizarduna agertuko da, garai batean gizartearen eskubideen alde borrokatzen ziren horietakoa. Begitaratean keinu zakarra duen arren, behin guapoa izan zela nabari zaio bere aurpegieran. Gela guztia arakutzen hasiko da, alde batetik bestera mugituko da, txakurra gaizkilearen arrastoak usnatzen dabilenean bezala.)

ZAHARRA.- Etxebizitza hauek gero eta itsusiagoak dituk, gero eta inbertsonalagoa dena. Ez zakiat ziur etxea edo psikiatrikoa den, ero koadrila bat bizitzeko moduko saloi higuigarria duk.

16 (Gaztea ohean eseri eta maskara kenduko du hasperen eginez. Maskara atzean Julenen adin bertsuko mutiko gaztea dugu, aurpegi tristea du eta bizitza gogorra izan duela antzematen zaio bere keinu apaletan. Baina, hala ere, jatorra dirudi.)

GAZTEA.- (Bere buruari.) Erosoa da, bai, benetan eroso.

ZAHARRA.- Ez gaituk deskantsatzera etorri, ezin gaituk lo gelditu. Azken finean, ez zakiagu zenbat denbora funtzionatuko duen seinale eta frekuentzia guztiak inhibitzen dituen aparatuak. (Serio antzean.) Por tzierto, heuk programatu huen, ezta? Zenbat denbora, e? Hik jakin beharko huke, ala? Zenbat denbora funtzionatuko du gailu zikin horrek? (Gazteak naturaltasunez altxatu ditu sorbaldak, ez dakiela adierazteko. Zaharrak ukabilkada emateko besoa altxatuko du, baina barrezka hasiko da azkenean.) Txorutzen egongo dituk urbanizazioko zaindari tentelak, dedion... (Telebistako aurkezlearen ahotsa imitatuz.) "Munduko etxerik inteligenteenak, seguruenak, modernoan." Etxebizitza inteligente hauek ez dituk uste bezain perfektuak... eskerrak... eskerrak guretzat. Paretak eta teilatuak hautsiezinak diren arren, zoruak ez ditiztek horren ongi diseinatu, etxean egindako bonba txiki batez erraz suntsi daitezkek. Hik egindakoa, noski. (Gazteari keinu atseginez.) Zein azkarra haizen, txikito!

GAZTEA.- (Zaharra hitz egiten ari zela, lasaitasunez gela arakatzeari ekin dio gazteak, bestearen lausenguei kasu handirik egiten ez diolarik.) Diseinua paregabea da eta, harmonia eta modernotasuna aldi berean uztartzea lortu du diseinatzaileak. Zeinen

estruktura ederrak!

ZAHARRA.- (Berriz haserre.) Zer arraiotan habil? Entzun, utziok handiusteko tipo horietako batek bezala hitz egiteari, dedion! Kriston nazka ematen duk! Txikito bat besterik ez haiz-eta!

GAZTEA.- Horrelako logela bat nahi izan dut beti.

ZAHARRA.- Etzak pitokeriarik esan! Hemen dauden tramankulu teknologiko hauetatik, baliotsua dena hartu eta lehenbailehen beste geletara jo behar diagu lur azpian egindako pasabidetik. (Logela arretaz begiratzuz, lehenengo aldiz ikusiko balu bezala behatuko du dena.) Egia esan, gauza gutxi ditik agerian... ez, ez, ez... ezer gutxi gurekin eramateko; amaren logelan egongo duk baliozko materiala. Hori espero diat behintzat, bai, bestela... (Berriz baikorra izan nahian, jarrera abegikorraz, gazteari sorbaldan zapladatxoak emango dizkio.) Ideia bikaina izan zuan urbanizazioko bazter ilun horretan kanpatzea, horren lur eremu zabalekin ia ezinezko duk zaindarien inor topatzea. Aberatsak beti bizi izan dituk fantasiaren erreinuan, ametsen paradisu...

GAZTEA.- Bai, egia.

ZAHARRA.- (Kopetako izerdi tanta beroak lehortuz.) Hau lan nekoso, txikito! Etxea hilabete kontrolatzen, hemen bizi direnen ordutegi guztiak aise ikasi ahal izateko, haien mugimendu oro xehetasunez idatziz... A, ze esfortzua! Jo, urbanizazio modernoetan leihorik ez dagoen arren, eskerrak mila aparatu asmatzen dituala, txikito. Nori bururatuko litzaiokek bestela, (ahotsa aldatuz.) "pareten bestaldean gertatzen dena ikusteko gai den aparatua" Bikaina!

GAZTEA.- Ez da horrenbestereinoko meritua, komertzializatu gabeko milaka prototipo daude. Ideia ostu eta aldaketatxo batzuk besterik ez dizkiot egin. Sarean denetarik topa daiteke gaur egun, bilatzen jakin behar, besterik ez.

ZAHARRA.- Posible duk, bai. (Harroputz, ahoberokeriak esanez hasiko da, benetan meritua berea dela argi utzi nahian.) Argi zagok neuk ongi aukeratu nuela unea, bestela akabo; okasio egokia hautatzea, hori duk garrantzitsuena garaipena lortzeko, mutikoa etxean bakarrik...

GAZTEA.- (Bestearen dibagazioak oharkabean etenez bera bakarrik egongo balitz bezala.) Erraza izan da.

ZAHARRA.- Zer diok?

(Zaharra haserretuko zaio meritua kendu nahi diola uste baitu. Gaztea, zaharraren aurpegi oldarkorraz ohartu gabe, agenda digitala aterako du eta irakurtzen hasiko da, esku artean duena informe bat izango balitz bezala.)

GAZTEA.- Ama apenas egoten da etxean, lo egitera oso berandu etortzen da eta goizeko seiak inguruan alde egiten du kafe hutsa hartu eta gero. Etxea kontrolatzen gaudenetik aitarik ez da agertu. Agian ez du izango, auskalo, puntu hori aztertzeke geratzen da. Egunero goizeko bederatzieta, igandeetan izan ezik, noski, ziberneskaime partikularra etorri ohi da otorduak prestatzera eta etxea garbitzera, egunero ordu biak inguruan alde eginez. Hamabost egunean behin musika irakaslea eta psikologoa etortzen dira. Ordubetez. Mutikoa astearte eta ostegunetan eskolara goizeko zortzieta abiatzen da eta bostak aldera bueltatzen. Bestela etxean egoten da beti. Bakarrik. Ez du bisitarik izaten. Inoiz ez. (Agenda digitala itxiz eta atera duen barruko poltsikoan gordez, bere buruari esaten dio.)

Oso erraza. Errazegia.

ZAHARRA.- (Lasaituta gaztearen esaldia ulertu ondoren.) Egia duk, bai, ez zaik arrazoirik falta. Etxe honetan ohiturak nahiko errotuak ditiztek.

(Une horretan zarata ozenaz lurra mugitzen hasiko da.)

ZAHARRA.- Zer duk hau, dena kontrolatua genuela uste nian.

GAZTEA.- Eta, hola dela... uste dut. (Beste aparatu txikia poltsikotik atereaz urduri begiratuko du.) Seinale eragozleak funtzionamenduan jarraitzen du, ikusten duzu argi gorria, ezta? Ba, hori

da seinale eragozlea, argi gorria. (Botoi batzuk etengabe sakatuz.) Ez dut ulertzen, alarma guztiak itzaliak daude. (Aparatutxoa gordez zalantzati.) Lurrikara izan daiteke?

ZAHARRA.- Etzak alukeriarik esan, estatuek aspaldi debekatu zitiztean lurrikarak.

(Ezustean lurrean egindako zuloa itxiko da, bien harridurarako.)

II

GAZTEA.- Lurrikara izan daiteke?

ZAHARRA.- Etzak alukeriarik esan, estatuek aspaldi debekatu zitiztean lurrikarak. (Ezustean lurrean egindako zuloa itxiko da, bien harridurarako.)

ZAHARRA.- Zer da hau? (Zuloa erabat desagertu dela eskuekin eta hankekin egiaztatu ondoren, lurrari kolpeka hasiko zaio amorruz. Gazteari.) Jakin daiteke zer gertatu den? Dena kalkulatu huela uste nian.

GAZTEA.- Ez dut ideiarik.

(Gazteak arropen artean zuen beste tramankulu txikia bezain bitxia aterako du eta zuloa zegoen lekura bideratuko du. Proba batzuk egin ostean tramankulua gordeko du, eta etsi aurpegia jarritz hasperen egingo du.)

GAZTEA.- Ez dago ezer egiterik.

ZAHARRA.- Zer? Nola? Zer esan nahi duk?

GAZTEA.- Entzun duzuna. Matxuraren bat dutenean, etxe inteligente askok haien burua berreraikitze gaitasuna dute. Ez nekien zer puntutaraino zuten gaitasun hori, sukaldeko etxetresna txikientzat bideratua zegoelakoan nengoen. Uste baino boteretsuagoa da, seinale eragozleen gaintetik dago.

ZAHARRA.- Antzinako sugandilen antzera, buztana galtzean beste bat ateratzen zitzaiela?

GAZTEA.- Bai, etxe hauek animalia bizidunak dira.

ZAHARRA.- Dedion! (Urduri, gazteari aginduz.) Eginzak beste zulo bat berehala! Eginzak, ez al duk entzun?

GAZTEA.- Ezinezkoa, material guztia pasabidean geratu zaigu.

ZAHARRA.- Asmazak beste bat! Uneoro ari haiz gauza berriak asmatzen! Ez diat uste horren zaila izango denik.

GAZTEA.- Hemen ez dago apenas tresnarik ezer fabrikatzeko... Gainera, ez genuke astirik izango.

ZAHARRA.- Mozolo halakoa!

(Zaharra pareta kolpatzen hasiko da amorratuta.) GAZTEA.- Alferrik, hautsiezina da.

(Zaharra diseinuzko aulkia hartuz, paretaren kontra botako du hau apurtu nahian, baina pareta apurtu beharrean, aulkiak errebotatu egingo du berriz lurrera eroriz.) ZAHARRA.- (Haserre bizian.) Aaaa! Eginzak zerbait! Hemendik irten behar diagu berehala! (Gaztea astinduz.) Esan

zerbait, esan zerbait, madarikatua! Ez al hintzen hi garun pribilegiatua? Edo harropuzkeriatan ibili haiz beti? Mozolo harroputza! Mozolo harroputza besterik ez haiz!

GAZTEA.- (Apenas urduri jarri gabe.) Ez dakit. Ez dakit zer egin.

(Zaharra erabat aztoratuta dagoela, zaplaztekoa emango dio gazteari. Horren aurrean gazteak ez du espresiorik aldatuko, ez zaio sentimendu aldaketarik nabari.)

(Isiltasuna.)

ZAHARRA.- (Egin duenaz damututa, ohera joango da urduri.) Bar... barkatu... ez nian nahi... barrenak kiskaltzen hasi zaizkidak eta... badakik...

GAZTEA.- (Zegoen lekutik mugitu gabe aurpegiko espresioa ez du aldatuko, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Erabat neutroa.) Zerbait pentsatu behar dugu.

(Isiltasuna.)

ZAHARRA.- (Arnasketa batzuk egin ondoren, lasaiago dagoela ematen du.) Akaso... mutikoa esna zezakeagu... berak jakingo dik seguru asko nola irten hemendik... hori izango duk hoberena...

GAZTEA.- Bai, posible da. (Juleni hurbilduz.) Lo seko dago. (Irribarre puntuaz.) Aingerua ematen du.

ZAHARRA.- (Atsegina izan nahian.) Ba al dakik nolakoak diren aingeruak, ala? GAZTEA.- Ez, baina oso ederrak zirela irakurri nuen behin.

ZAHARRA.- Irakurri? Bai denbora galtzea! Hi beti zentzurik gabeko gauzak irakurtzen, erlijioak aspaldi desagertu zituan eta! Orain bakarrik freskagarriak gurtzen dizkik jendeak. (Iragarki baten ahotsa imitatuz.) "Ziber-kola dastatu eta zoriona gozatu" "Izan hadi berezia, probatu freskagarri mundiala: banilla eta gerezia" (Juleni begira. Isilune baten ondoren.) Ederra duk, bai. Hi ere horrelakoa hintzen gurekin etorri hintzenean. Orain, ordea... (Damu da esaldiaz, baina badirudi gazteak ez duela entzun. Biak isiltasunean Julenek nola lo egiten duen begira geratuko dira. Segundo batzuk geroago, zaharrak magia unea hautsiz.) Beno... berehala esnatu behar diagu ume moko.

GAZTEA.- (Oraindik Juleni begira dagoela.) Ez eman minik, mesedez.

ZAHARRA.- Lasai, txikito.

(Gaztea aldentzean, bestea Julenen ondoan makurtuko da. Poltsikotik esentziaren bat daraman botilatxoa aterako du; Julenen sudur ondotik pasatuz, honek pixkanaka begiak berriz ireki arte mantenduko du.)

ZAHARRA.- Ez zagok metodo zaharrak bezalakorik! (Juleni.) Egunon, loti eder.

(Julenek hasiera batean ez du gogoratuko zer gertatzen den, baina berehala ohartuko da, eta lurretik arrastaka mahai azpian ezkutatuko da bere burua babestu nahian. Gaztea gerturatuko zaio, Julen oso urduri jarriz.)

GAZTEA.- (Julen lasaitu nahian.) Lasai, lasai. Ez diagu ezer egingo eta. (Julenen ondoan dagoenean, ahoa estaltzen dion estatu globaleko bandera poliki askatuko dio.) Trapu zahar hauek, ez ditek ezertarako balio... (Alde batera botako du trapua indarrez.) Zer moduz hago?

JULEN.- (Harridura eta negarraren artean.) Nortzuk zarete? Zer nahi duzue? Ez egin ezer, mesedez.

GAZTEA.- Min handia al daukagaurpegian?

JULEN.- (Bat-batean mina gogoratu izan balu bezala, oraindik negarrez dagoela.) Ez... beno... pixka bat masailezurrean.

GAZTEA.- Berehala pasako duk. (Txantxetan zaharrari buruz.) Tipok ez dik indar handirik.

ZAHARRA.- (Bere gorputzaren defentsa eginez, atsegina izan nahian, txantxetan hasiko da.) Porru eginda nagok, baina kristoren giharrak ditiat. Begira, begira, mutil katxarroa nauk. (Bere besoak seinalatuko dit, giharrak erakutsiz. Western bateko gaiztoaren ahotsa jarriko du.) Nahi izan banu, lurrean akabatuta egongo hintzateke, mutiko. (Irribarre ironikoaz, berriz gaiztoaren zereginak egin behar dituela konturatuz.) Argi hitz egingo diagu gaztetxo. Eskatutakoa egiten baduk, ez zaik ezer gertatuko. Baina, bestela, akabo... (Mehatxu keinua egingo dio.)

GAZTEA.- (Zaharraren jarrera gaitzetsiz.) Lasai, e! (Bere kidea baino adeitsuagoa izan nahian, Juleni hitz egingo dio.) Berak esan nahi duena zera duk: ez garela hiri min ematera etorri, etekinak lortzera baizik.

JULEN.- Etekinak? (Negarra lasaituz, helduen baretasuna transmititu nahi du, baina faltsua ateratzen zaio.) Etekinak... ados. Zer nahi duzue?

ZAHARRA.- Badirudi elkar ulertzen dugula behingoz. Ongi zagok hori. Oso erraza duk, etxebizitza honetan punta-puntako teknologia zagok hamaika aparatutan. Horiek eraman nahi ditiagu gurekin.

JULEN.- (Bere buruari.) Lapurrak, noski, nolatan ez dut lehenago imajinatu.

ZAHARRA.- (Julenek esandakoa entzun duela.) Ez, nik ez nitek hori esango, "lapurrak" hitz itsusia duk, erabiliegia. Erresistentziakoak gaituk, inoiz entzungo huen guri buruzko zer edo zer.

JULEN.- (Zalantzati hasieran, azkenean zerbait gogoratuko du eta buruarekin baietz esango du. Totelka hitz eginez.) Ba... Baietz, uste dut. Telebistan. Gaizkileak zarete eta polizia beti zuen bila dabil. Estatu globalak dirua eskaintzen du, (askotan entzundako zerbait errepikatuz.) "erresistentziaren informazioa ezagutarazten duen ororentzat". Hala ere, egoera kontrolatuta dutela esaten dute aldiro, gero eta ahulagoak zaretela eta laster legearen esku egongo zaretela.

GAZTEA.- Betiko gezurrak. Estatu globalak telebista erabiltzen dik bere mezu globalak bidaltzeko, eta mezu globalarekin ados ez egotekotan, gaizkilea haiz.

JULEN.- (Lasaiago hitz eginez.) Baina gauzak lapurtzen dituzue eta biolentzia erabiltzen duzue horretarako.

GAZTEA.- (Mespretxu aurpegiaz begiratuko dio zaharrari eta hau kikildu egingo da.) Ez duk horrela izaten normalean, ez diagu biolentzia erabiltzen, ekintza baketsuen aldekoak gaituk, baina... (Joeri errieta egingo balio bezala hitz eginez.) Joe batzuetan urduri jartzen duk.

JULEN.- Joe?

ZAHARRA.- (Keinu komikoak eginez, ingeles azentua jarritz.) Joe nauk, hire zerbitzurako. (Gazteari seinalatuz.) Eta bera... Michael.

JULEN.- Michael? (Harrituta.) Urte askotarako... uste dut. (Jatorra izan nahian, bere eskumuturrak begiratzuz.) Barkatu, baina ezin dizuet eskua luzatu.

ZAHARRA.- Bai, egia. Oraingoz hobe duk horrela.

JULEN.- Ni Julen naiz. Joe eta Michael, izen bitxiak, ezta?

ZAHARRA.- Ez dituk gure benetako izenak, noski. Hobe diagu geure benetako izenak ezkutuan gordetzea. Ez zakiat ingelesa gogoratuko duan...

JULEN.- Ingelesa? Ez gehiegi, zerbait entzun dut entziklopedia birtualean. Hizkuntza bat zen, ezta?

GAZTEA.- Aspaldi desagertutakoa, oso zabaldua zegoan mundu osoan zehar, horrek ezartzen zian neurria.

ZAHARRA.- Eta beste hizkuntzak zeharo kutsatu zitian, hau amorrua...

GAZTEA.- Gaur erabiltzen ditugun hitz asko ingelesetik zatozak, tamalgarria benetan hizkuntza baten desagertzea, baina horrela gertatu duk mendeetan zehar. Orain batez ere estatu globalaren hizkuntza hedatzen ari duk ikono itsusiz betea, eskolan ikasten duk hori, ezta? (Julenek baietz egiten du buruaz.) Imajinatzen nian, bai.

ZAHARRA.- Zorionez ez dituk hizkuntza guztiak galdu.

GAZTEA.- Horren dibertigarriak iruditzen zaizkiguk ingeleseko hainbat izen, ezen geure akzio guztietan erabiltzen ditugun.

ZAHARRA.- Batzuetan John, besteetan Billy, sarritan George eta noiz edo noiz Stanley. (Tontoarena egiten.) Kaixo, ni Stanley naiz. Egunon, Stanley nauzue. Urte askotarako Stanley

jauna. Ez esan ezer, zu Stanley baten aurpegia daukazu. (Barrezka hasiko da.) Ez al zaik dibertigarria iruditzen?

JULEN.- (Azkeneko galderari kasurik egin gabe, gazteari.) Beraz, askotan lapurtzen al dituzue gauzak etxeetan?

GAZTEA.- Akzio oso ezberdinak egiten ditiagu gure helburuak lortzeko, estatuaren bidegabekeriak agerian uzteko. (Tonua aldatuz, serioago.) Ezberdina duk etxeetan sartzearena, erresistentziaren mantenurako beharrezkoak dituk akzio hauek, ez duk ulertzen? Ez gaituk lapur hutsak, ez diagu geure burua lapurtzat jotzen... helburu gorenagoa diagu, estatu globala suntsitu, makurrarazi.

JULEN.- Suntsitu, makurrarazi... eta biolentzia ez duzuela erabiltzen diozu? (Bere buruari.) Alprojak!

GAZTEA.- Hitz egiteko modu bat duk. Ekintza mordoa egiten ditiagu, baketsuak denak, baina dirua behar diagu hainbat gauza ordaintzeko, propaganda egiteko, kasu.

JULEN.- Eta hori guztia zertarako?

GAZTEA.- Mundu berria sortu nahi diagu. Guztiok aukera berdinekin bizitzeko.

JULEN.- (Bere buruari marmarrean.) Zakurraren putza. (Lehor.) Ez, uste dut ez dudala ulertzen.

ZAHARRA.- (Bere buruari.) Banengoen ba ni, arazoak emango zituela mukizu honek. (Sortu den eztabaida txikia baretu nahian, inora eramango ez dituela ikusita.) Mutiko, ez zizkioagu edonori gauzak kentzen, soberan dutenei bakarrik. So-be-ran. Bai? Ulertu duk? Gaur etxe honetatik eramaten dugun guztiaren bi pare erosiko duzue bihar. Ez da hala, esan, ez da hala?

JULEN.- Ez dakit. (Pentsakor.) Bai... uste dut, ez zaizuela arrazoi pittin bat falta. Amak inolako baliorik ez duten milaka gauza erosten ditu egunero... baina, jo, ez dago ongi besteei gauzak kentzea...

GAZTEA.- Ongiari eta gaizkiari balio handiegia ematen zaiek. Nork erabaki du hori guztia? Estatu globalaren ongia eta gaizkia existitzen dituk eta kito, existitzen diren arauak onartzen ditiagu hor daudelako. Baina benetan beti egon al dira hor? Eta horrela ez bada, nork asmatu zituen? Zergatik dituzue zuek horrenbeste gauza eta askok ez dute jateko ogi apur bat bera ere? Erabaki berriak nahi ditiagu, mundu berria.

JULEN.- Gehiegi hitz egiten duzu. Telebistan esaten dutena ez da hori, jo, munduan gosea aspaldi desagertu zen, zuek bezalako jendearengatik existitzen dira arazo bakarrak. (Purrustaka.) Alferrak eta odolgaiztoak.

(Isiltasuna.)

ZAHARRA.- (Biolentziarekin ezer lortuko ez duela ikusita, tentsio uneak apurtzeko, umoretsua izaten saiatuko da.) Gainera, aberatsei osten zieagu pobreei emateko.

JULEN.- (Interesaz.) Pobreei emateko?

ZAHARRA.- Noski. (Irribarrez.) Gu geu gaituk pobreak. (Txorakeriak eta magia jolasak eginez.) Zer duk hementxe? (Adibidez gaztetxoaren belarritik txanpona atereaz.) Tatxan,

tatxan!

(Zaharra barrezka hasi da ozen, beste biek elkarri begiratuko diote, azkenean barreaz kutsatuz. Gogoz egingo dute barre, bizi duten tentsioa apurtzea lortuz.) GAZTEA.- Etxeetan lortzen duguna salduz, erresistentzia aurrera zoak. Eta erresistentziak herriaren alde lan egiten dik. Ez zieagu zuzenean dirua pobreei ematen, ez diagu limosnarik eman nahi, gauzak errotik alda nahi ditiagu. Haien alde lan egiten ari gaituk, haien eskubideen alde, ahotsik ez duten horien guztien alde.

JULEN.- Jo, esaten duzun hainbat kontuk zentzua badu, baina... baina ez dut gustuko besteei gauzak kentzea, ez dago ongi. (Sortu den egoerarekin bukatu nahi duela.) Hala ere, hori guztia niri bost. Nahiago nuke etxetik lehenbailehen alde egingo bazenute... horregatik... eraman behar duzuen guztia... eta zoazte...

ZAHARRA.- Egia duk. Erretolikak guk ere ez ditiagu gustuko, denbora galtzea duk. Baina... arazotxo bat zagok.

JULEN.- Arazoa? Zein arazo?

GAZTEA.- Etxe inteligente honek zuloa itxi egin dik. Eta ezin gaituk irten.

ZAHARRA.- Preso gaudek etxe ultramoderno zikin honetan.

JULEN.- (Hemendik aurrera ume ezjakinaren ahotsa jarritz.) Hau da hau kalamidadea! Eta zer egin dezakegu?

ZAHARRA.- Hori duk jakin nahi duguna. Esaguk oraintxe bertan, zer egin gelako atea irekitzeko.

JULEN.- Baina... nik ez dakit eta... ez duzue lehen ikusi ba, ezin izan dudala ireki? Ez dakit nola irten hemendik, zeuek blokeatu dituzue segurtasun sistema guztiak. Jakin beharko zenukete nola desblokeatu, ez da ala?

ZAHARRA.- (Gazteari.) Ez duk tontoa gero.

JULEN.- Zerbait erabiliko zenuten, seinale eragozlea edo.

ZAHARRA.- (Bere buruari.) Harrapa zak, ume moko! Ongi kontrolatzen dik dena azeri honek.

GAZTEA.- (Juleni.) Hala duk. Baina denbora jakin baterako programatua zagok eta hemendik ezin duk aldatu, ezin desprogramatu.

JULEN.- Nahi baduzue lagun zaitzaketet, nahiko abila naiz. Eskolan ikasi dugu seinale eragozleen aplikazioak eta neure kabuz ikerketak egin ditut. Eskuak askatzen badizkidazue, noski.

(Elkarri begiratzen diote.)

ZAHARRA.- Ez. Azkarra haiz gero.

GAZTEA.- Programak ez dik aldaketarik onartzen, hik ere ezingo huke lortu. Gainera, babesik gabe geratuko gintuzkek, berehala zaindari guztiekin gainean.

ZAHARRA.- (Juleni.) Kasu egiok, garun pribilegiatua duk, badaki zertaz ari den.

JULEN.- (Serio.) Orduan ez dakit nola.

(Isiltasuna.)

GAZTEA.- Bai, baina moduren bat egon beharko dik. Ea pentsatu, zer egiten duk normalean hau gertatzen denean?

JULEN.- Ba... ez dakit... hau ez da inoiz gertatu. (Ironiaz gazteari.) Ez al zinen zu ba garun pribilegiatua?

ZAHARRA.- (Berriz haserre.) Ez, e? Kagoen, kokoteraino naukak. (Eskua altxatuz.) Ikusiko duk zer den hitz egitea, mukizu halakoa!

(Julen izutu egingo da; dena den, biolentzia ekiditeko, gazteak zaharra geldiaraziko du eskumuturretik helduz.)

GAZTEA.- (Haien artean.) Zertan zabilta? Egon zaitez geldi.

ZAHARRA.- Dedion! Gezurretan ari duk, argi zagok!

GAZTEA.- Igual bai, baina horrela ez duzu ezer lortuko.

ZAHARRA.- Baietz ba, neuk aterako zioat egia... ederki egurtuz.

GAZTEA.- Ezetz ba, Joe, utzi nire kontu.

(Entzuten ez ditugun hitz batzuk izan ondoren, zaharra konbentzituta alde batean geratuko da eta gaztea Julenengana joango da, bere ondoan eseriz.)

GAZTEA.- Lasai, lagunak gaituk, ezta? (Julenek erantzuten ez diola ikusita, eskumuturrak askatzeari ekingo dio poliki-poliki.) Marka gorriak izango dituk eskumuturretan, baina bi egunen buruan desagertuko zaizkik, aztarnarik utzi gabe. (Behin askatuta.) Hobe horrela? Bai, ezta? (Julenek baietz esango du buruaz, mindutako eskumuturrak laztantzen dituen bitartean.) Esan bezala ez diagu minik eman nahi, horregatik laguntzea nahiko genikek. Ezin gaituk hemen egun osoan egon, azkenean norbait etorriko duk eta ordurako guk alde egin behar diagu.

JULEN.- Jo, ez dizut esan ba...

GAZTEA.- Lagunak gaituk, ez hitz egin zuka, mesedez.

JULEN.- (Zalantzati hasieran, azkenean lagun bezala hitz egiten saiatuz.) Ez dizut... ez diat esan ba, ez dakidala nola...

GAZTEA.- (Polizia onaren papera hartzen duela.) ...pentsatu, behintzat, pensatu. Informatiko bikaina haizela zakiagu, bideojokoak sortzen dituala eta domotika eguneroko gauza duk hiretzat. (Julenek miresmen harriduraz begiratzen du.) Agian seinaleena erabiltzen badakik, baina beste modu bat egongo duk, seguru. Neuk igual asmatuko nitek, baina denbora gehiago erabilita. Gainera etxea guk baino hobe ezagutzen duk, ia beti bakarrik hago, ataka askotatik inoren laguntzarik gabe ateratzen jakingo duk.

JULEN.- (Pentsakor.) Jo, helduak bezala hitz egiten duk. (Bere onera bueltatuz.) Nola dakizue hori guztia?

GAZTEA.- Hilabete egon gaituk etxea zelatatzen.

JULEN.- Hara, leihorik gabeko etxea duk baina.

GAZTEA.- Mila modu zaudek horretarako eta hik ere badakik; ez haiz batere tontoa, horrelakorik entzungo huen inoiz? (Julenek aurpegiaz ezjakintasuna adierazten duela.) Gauza asko zakizkiagu, bai, baina horrek ez dik axola orain. Hemendik atera behar diagu lehenbailehen. Esan, zer egingo huke hik bakarrik egonda, etxeko sistema guztiak hondatuko balira?

JULEN.- Ez zakiat... negar egin?

ZAHARRA.- (Bere buruari.) Harrapa zak!

GAZTEA.- Bai, ados, eta gero?

JULEN.- Ohean sartu eta norbait etorri arte itxaron?

ZAHARRA.- To eta no! Honek ez dik funtzionatzen!

GAZTEA.- (Zaharrari.) Ixo!

ZAHARRA.- Ongi, hire kontu. Baina larri ibili. Bitartean musika entzungo diat, Maria Callas, jainkosa. (Entzungailu batzuk aterako zaizkio automatikoki belarrietatik eta mutikoak dauden beste muturrera joango da musika entzutera, besteen elkarrizketei kasurik egin gabe.) Ez zagok opera abeslari hoberik!

(Bi mutikoen artean isiltasuna egingo da.)

JULEN.- Hire aita nahiko berezia duk: kristoren astakiloa, baina gero opera entzutea gustuko dik! Gaur egun ikusi beharrekoak ere... (Irribarrea aurpegian duela.) Benetan tipo xelebrea! Ez duk, uste bezain...

GAZTEA.- (Eteten duela.) Nire aita?

JULEN.- (Bere burua zuritu nahian, esan duena gazteak gaizki hartuko duen beldur da eta.) Astakiloarena... hitz egiteko modu bat besterik ez duk... asmo txarrik gabekoa... ze, ez diat ukabilkadarengatik bakarrik esaten, zera... beno... ez gaizki hartu gero... baina, Joe... Joeren jarrera gehienak oso oldarkorrak dituk... e... gauzak beti indarrez lortzen ditik... uste diat... ez?... hala ere... ez haserretu... nik...

GAZTEA.- Joe? (Barrezka hasiko da.)

JULEN.- Tipoa txistosua ere bada... baina orain... zergatik egiten duk barre? Ez diat ezer ulertzen. Ez dik grazia izpirik, inondik inora.

GAZTEA.- Ba, badu, bai. Joe? Nire aita? (Barreari ezin eutsiz hizketan hasiko da.) Nola izango nauk astakirten horren semea, ba? Ez diat gauza barregarriagorik sekula entzun. Animalipuska horrena?

JULEN.- Ez da hire aita? (Gazteak ezetz esango dio buruaz.) Barkatu, baina hain gaztea izanik, uste nian familiaren kontua zela.

GAZTEA.- Belearen kumea, belakumea. Bai, noski. (Irribarretsu.) Benetan pentsatzen huen etxeak husteru familia osoa elkarrekin joaten ginela? Behinolako mafiak bezala edo kriminal sagen moduan? Amona, zigarroa ahoan, armaz josirik kalean gure zain zegoela uste al huen?

JULEN.- (Zalantzati.) Bai?

GAZTEA.- Ba, EZ. Zibertelebista gehiegi ikusi duk, mutiko. (Barre egiteari utziko dio batbatean.) Gainera, aspaldi bete nitian hemezortzi urte, neure kabuz egin zitzaiteke gauzak familiarekin kontatu gabe.

JULEN.- Bai, zera! Hemezortzi, hik?

GAZTEA.- Jakina!

JULEN.- (Zalantzarik gabe.) Ez, askoz gazteagoa haiz.

GAZTEA.- Ezetz ba, gazteagoa ematen diat baina hemezortzi urte ditiat.

JULEN.- (Irribarretsu.) Heuk esaten baduk.

GAZTEA.- Nola? Ez duk sinesten? (Julenek ezetz esango du buruaz.) Ados, hamazazpi urte ditiat. Pozik? Hamazazpi.

(Julenek ez du ezer esango baina begietara begiratuko dio irribarrez.)

GAZTEA.- Hamabost eta utz dezagun gaia.

JULEN.- Ia nire adinekoa, esaten nian ba nik. Ados. Nola bukatzen du hamabost urteko batek, alproja horrekin alde batetik bestera?

31 GAZTEA.- Joe? Ez duk tipo gaiztoa, pentsatu gabe egiten ditik gauzak... gauza gehienak, bai... baina ez duk tipo gaiztoa.

JULEN.- Izan daitekek. Hire gurasoek zer diote? Nola onar dezakete, horren gaztea izanik, erresistentziaren izenean lan egitea?

GAZTEA.- Ez diat gurasorik. Aspaldi galdu nitian.

(Isilunea.)

JULEN.- Barkatu, ez nekian.

GAZTEA.- Ez dik inporta.

(Berak istorioa kontatzearekin batera, gaztearen oroitzapena ikusiko dugu itzaleko txotxongiloez adierazia.)

GAZTEA.- Txikia ninduan hil zirenean, estatu globalak eskaintzen zian gala festarako bidean auto-istripua izan genian. Ez diat gehiegi gogoratzen. Modako azkeneko kotxea zeramatean abiadura bizian; herrialdeko ziberautopista garrantzitsuenetik zihoazela, bihurgune arriskutsu batean autoa labaindu egin zuan eta estatu globalak landatutako zuhaitz metaliko berrien kontra egin genian talka. Eskultore famatu batek sortutako zuhaitz hidrauliko zatar horiek.

Zeharo birrinduta aurkitu zitean autoa eta neu bakarrik atera ninduan bizirik istriputik. (Kopeta seinalatuz.) Hemen dudan orbaina horren seinale duk. Estatu globalak barnetegira bidali nindian ospitaletik atera bezain laster, gurasoen diruaren jabe izateko seguru asko. Aste batzuk geroago ihes egin nian irakasle globalen kolpeez nazkatuta eta, erresistentziarengatik izan ez balitz, hotzaz hilda egongo ninduan hiriko edozein bazterretan. (Itzaleko txotxongiloak desagertuko dira.) Joe zaintzaile izan diat urte hauetan, guztia irakatsi zidak, berari esker nauk horrelakoa.

JULEN.- Gaizkilea.

GAZTEA.- Joan hadi pikutara!

JULEN.- Tristeia izan behar dik.

GAZTEA.- (Minduta.) Ez duk nire benetako aita, ez. Baina, tristeagoa duk gurasoak izatea eta inoiz ez ikustea.

JULEN.- Zer esan nahi duk, e, zer esan nahi duk?

GAZTEA.- Hilabete egon gaituk hire pauso guztiak zelatatzen.

JULEN.- Eta zer?

GAZTEA.- Hire gurasoak gehiago arduratzen direla lanaz beren semea zaintzeaz baino. Edota aita hil zitzaian hiri ere? Ez, ezta?

JULEN.- (Defentsiban jarriz.) Zer ba?

GAZTEA.- Ez diagu denbora honetan guztian ikusi.

JULEN.- (Haserrea eta negarraren artean.) Beti bidaiatzen zabilek. Biek lanordu luzeak egiten ditiztek. Dirua ekartzen ditek, ez ditek lapurtu behar horretarako. Ze, diru horri esker, egunero jatekoa eta zuek desiratzen duzuen etxe moderno hau diagu. Ulertzen? GAZTEA.- Eta zoriontsua haiz?

JULEN.- Bai... baietz uste diat... jo, hi baino gehiago bai...

GAZTEA.- Ziur?

JULEN.- Ez diat hire bizitza inbidiatzen.

GAZTEA.- Ezta nik hirea ere.

JULEN.- Ados.

GAZTEA.- Ados.

(Isiltasuna haien artean.)

JULEN.- Zergatik deitzen hau garun pribilegiatua?

GAZTEA.- Ezergatik ez.

JULEN.- Ez? Arrazoa duk, azkarregia haiz haren semea izateko.

(Zaharrari entzungailuak desagertuko zaizkio.)

ZAHARRA.- (Oraindik musikaren erritmoa buruaz jarraitzen segituko du irribarrea aurpegian duela.) Maria Callas, paregabea! Hau zentzuen gozamina! Ez duk hau

33 bezalako ahotsik beste inon existitu! Ezta automata abeslari sortzaile onenek ere, ez ditek sekula parekorik lortu. (Mutiko biak isilik ikusiko ditu, bakoitza alde batera begira muturtuta.) Eta zuek zer duzue? (Gazteari.) Michael, ez diagu ezer lortu, ezta? (Gazteak ez du erantzuko.) Txikito, erantzun, kontxo!

GAZTEA.- Ez, ez daki ezer. Nahiko tontolapikoa da.

JULEN.- Tontolapikoa ni? Ba, agian bazakiat hemendik ateratzeko modua.

GAZTEA.- A, bai?

JULEN.- Ba, bai.

GAZTEA.- Ez diat sinesten, ez dakik ezer.

JULEN.- (Erresuminduta.) Ba, oso erraza duk. Jakin beharko huke nola irten hemendik garun pribilegiatua izanik. Etxe inteligente guztiek milaka akats ditiztek, gizakiok perfektuak direla uste dugun arren. Eta neuk primeran ezagutzen ditiat etxe honek dituen akats guztiak. Lehenengoa... (Beste biei begira.) Harrapatu nauzue, ezta? Hau zuan lortu nahi zenutena, ni amorraraztea egia esan arte. (Besteek ezer esan gabe irribarre egiten dutela ikusita, jarrera aldatuko du serio eta kopetilun jarriz.) Ados, erakutsiko dizuet etxeak askotan sortzen dituen arazoak eta non dituen matxura edo zauri guztiak. Metalezko animalien zauriak. Zirrikitu horiek aztertuz lortuko diagu gela honetatik ateratzea zaindaria etorri baino lehen. Baina, lehenengo hankak askatu beharko dizkidazue. Zer diozue? (Biek elkarri begiratur, baietz esango dute buruaz.)

ZAHARRA.- Ados, baina ez saiatu guri ziria sartzen gero!

III

JULEN.- Ados, erakutsiko dizuet etxeak askotan sortzen dituen arazoak eta non dituen matxura edo zauri guztiak. Metalezko animalien zauriak. Zirrikitu horiek aztertuz lortuko diagu gela honetatik ateratzea zaindariak etorri baino lehen. Baina, lehenengo hankak askatu beharko dizkidazue. Zer diozue?

(Biek elkarri begiratzuz, baietz esango dute buruaz.) ZAHARRA.- Ados, baina ez saiatu guri ziria sartzen gero!

(Gazteak hankak askatuko dizkio Juleni eta honek hankak luzatuko ditu esfortzu handia eginez, minduta ditu eta.)

ZAHARRA.- Eta?

JULEN.- Lasai, hainbat froga egin behar ditiagu.

ZAHARRA.- Lasai, e?

JULEN.- Atea bere kabuz ez duk irekiko, arriskuak sumatzeko programatuta zagok, seinale eragozle guztien gainetik zaukak bere sena.

ZAHARRA.- Sena? Zer diok? Erotu al haiz? Etxe batek?

GAZTEA.- Isilik, kontxo! Jarraizak, mesedez.

ZAHARRA.- Ongi duk.

JULEN.- Etxea lasaitzen saiatu behar diagu, tentsioaren bibrazioak sentitzen ditik eta tentsio horren eraginez gotorleku saihestezina bihurtzen duk. Arriskurik ez dagoenean gure aginduak obedituko ditik.

ZAHARRA.- Adarra jotzen ari haiz.

GAZTEA.- (Zaharrari.) Ez. Egia esaten ari dela uste dut. (Hitz egiten duen bitartean zerbait oroituko balu bezala jokatu du, garuneko beste nonbaitetik informazioa etorri izan balitzaio bezala.) Duela urte batzuk zientifikoak ordenagailuen aurrerapenetan ikertzen zebiltzaan, eta orduan konturatu zituan, ia nahigabe, zertan huts egiten zitean. Makinak oso azkarrak zituan, askotan gizakiok baino gehiago... baina oraindik ez zitiztean gizakiok adina abilidade. Makinok ez zitean ez sentimendurik ez instinturik; ezaugarri horiek egoera askotan menderaezinak egiten zitiztean arren, beste askotan gizakiaren aurrean ahulak bilakatzen zituan. Horregatik pentsatu zitean, zer gertatuko zatekeen makinak amodioa edo tristura sentitzeko gai balira?

ZAHARRA.- Hori alukeria galanta! Geuk egiten ditugun akats eta kontraesan mordo batean sartuko liratekeela, elkarren artean suntsituz.

GAZTEA.- Hori bera pentsatu zitean zientifikoek, orduan hurrengo galdera egin ziotean euren buruei.

ZAHARRA.- Botazak behingoz!

JULEN.- (Irrikaz.) Bai, esan.

GAZTEA.- Honako ideia bururatu zitzaiean: eta sentimenduak izatearen onurak aprobetxatuz, hauek egoera guztietan kontrolatzeko gai balira? Adibidez, maitasuna zer den sentitzea, baina ekarri ohi dituen eraginak kontrolatu ahal izatea. Azken finean, makinak lituzkek.

ZAHARRA.- Hara, ez duk berria hori, betidanik soldaduei exijitu zaien ezaugarria. (Ahots sendoa jarriz kapitain moduko bat imitatuz.) Burua hotz mantendu behar duzue egoera guztietan! (Berriri bere ahotsaz.) Dedion!

JULEN.- (Pixkanaka gauzak ulertuz joango balitz bezala.) Baina soldaduak ez dituk sekula makinak bezain perfektuak izango.

GAZTEA.- Egia duk, Julen. Baina ez hori bakarrik. Zer gertatuko litzateke makinak dena aurreikusteko gai izango balira? Instintua, bihozkadak edota inspirazioa menderatzeko errekurtsuak izango balituzte?

ZAHARRA.- Esaten ari zaretenaren erdia ere ez diat ulertzen.

JULEN.- Jo, gizakiok baino boteretsuagoak izango liratekeela.

(Isilunea.)

ZAHARRA.- Baina hori ez duk gertatu. Eta ez duk sekula gertatuko, ezinezkoa duk. Kontu txoroekin beste bati.

JULEN.- (Gazteari.) Benetan tipo azkarra haiz.

ZAHARRA.- Gainera, kontraesanez betea zagok hire diskurtsoa, txikito. Bata bestearen atzetik. Nola nahas daitezke sentimenduak eta matematika bezalako zientzia zehatz eta hotza. (Eskuarekin bere kopetan hiruzpalau kolpetxo emanez.) Ez duk ikusten sekulako ergelkeria dela?

GAZTEA.- Uste duana baino gehiago ulertu duk, Joe, hori izan duk zientifiko eta ikerlari hauek gainditu beharreko atakarik sendoena.

JULEN.- Eta lortu dute?

GAZTEA.- (Orain arte kontatutako istorioa bukatu izan balitz bezala.) Bada, ez zakiat. Ikerkuntza gehienak ez dituk publiko egin, pixkanaka sartuz joan dituk ezaugarri horiek asmakuntza berrietan. Jendeak normaltzat hartuko ditik urte batzuen buruan. Kontrola nagusi izango duk, baina jendea zoriontsua izango duk bere etxeetan arazorik ez duen bitartean.

JULEN.- Ez nian sekula horrelako gauzetan pentsatu. Orain ulertzen diat garun pribilegiatuarena, benetan tipo argia haiz.

ZAHARRA.- Makina guztiak suntsitu behar ditiagu, beraz.

GAZTEA.- Ez izan astakiloa!

JULEN.- Teknikaren aurka joateak ez dik inolako zentzurik. Hori ez duk bidea, gure esku diagu aukera anitzeko mundua.

GAZTEA.- Arrazoa duk, teknologia berri guztiak baliagarriak dituk, baina ongi erabiltzen baditugu, noski.

ZAHARRA.- (Nazkatzen hasia dela marmarrean.) Utz ditzagun erretolikak eta goazen harira, berandutzen ari zaiguk eta.

GAZTEA.- (Gelan denbora gehiegi ematen ari direla konturatuz.) Egia da.

(Bai gazteak bai zaharrak Juleni begiratuko diote, eta ondoren elkarri.) ZAHARRA.- (Gogaituta.) Ados, hire kontu. Bitartean musika apurtxo bat entzungo diat... berriz ere...

(Gazteak Julen, besotik helduta, gelaren albo batera eramango du, eta oraingoan hau ere bortitzagoa izango da mutikoarekin.)

GAZTEA.- Lelokeriak alde batera utziko ditiagu. Joe nazkatzen hasia duk... eta baita ni ere... lehenbailehen esan behar diguk nola atera hemendik.

JULEN.- Gezurra zuan dena, ezta?

GAZTEA.- Gezurra?

JULEN.- Gurasoena eta hori guztia.

GAZTEA.- Beno... ez guztiz... Joe ez duk nire aita eta ez diat gurasorik, hori egia duk. Bestea... literatura apur bat, hire konfiantza lortu behar nian.

JULEN.- Orduan aurrerantzean ezin fidatuko nauk hitaz.

GAZTEA.- Hi ere jokutzen ari hintzen... denok gezurretan ari gintuan... bakoitza bere eremu estrategikoa defendatuz. (Julen muturtuta ikusirik.) Ongi duk, berriz hasiko gaituk. (Eskua luzatuz.) Markel.

JULEN.- Markel? Ze, Markel eta ze puñeta?

GAZTEA.- Bai, kontxo, nire benetako izena.

JULEN.- A! (Eskua hartu gabe jokoa onartuz.) Bale, ni Julen nauk.

GAZTEA.- (Eskua gordez.) Umezurtza nauk jaiotzez, baina ez zakiat zer gertatu zitzaien gurasoei, ez zakiat gurasoak zeintzuk ziren ere. Hamar urterekin ihes egin nian barnetegitik eta beste guztia badakik. Ez zagok besterik. Eta orain hire txanda, zeren beldur haiz?

JULEN.- (Ezustean, espero ez zuen galdera bat egin diotelako.) Beldur?

GAZTEA.- Argi zagok, etxe izugarri honetan bizi haiz, mundutik zeharo aldentuta, ia bakar-bakarrik, inoren bisitarik jaso gabe. Zerbaiten beldur izango haizela uste diat. Ez duk lagunik, edo? Bestela...

JULEN.- (Minduta.) Bakarrik ez, milaka lagun ditiat ordenagailuaren beste aldean, egunero bidaltzen zizkioagu mezuak elkarri. Ulertu duk? Ez nagok bakarrik.

GAZTEA.- Ados eta zenbatetan geratzen zarete bueltatxo bat emateko?

JULEN.- Erotuta al hago? Inor ez duk "bueltatxo" bat ematera irteten, ze garaitan bizi haiz? Kaleak arriskutsuak dituk.

GAZTEA.- Benetan?

JULEN.- Zuek bezalako gaizkileak zaudek leku guztietatik.

GAZTEA.- Baina, telebistan ez ditek hori esaten, egoera kontrolatuta...

JULEN.- Telebistan ez ditiztek gauza asko esaten...

GAZTEA.- Argi zagok.

JULEN.- Sarean ordea...

GAZTEA.- Sarean? Ados. Orduan sarean esaten dutena sinesgarriagoa duk, ongi, orduan sarean kalera ez irteteko agindu diate.

JULEN.- (Sututa.) Agindu? Inork ez zidak ezer agindu. Dena nahasten duk.

GAZTEA.- Ez, ez duk hori. Jatorra haiz, horregatik amorratzen naiz manipulazioaren erabilpena, kaleak arriskutsuak badira, hire ustea izan behar dik eta ez beste inorena. Hik heuk konprobatu behar duk.

(Isiltasuna.)

GAZTEA.- (Berriz eskua luzatuz.) Benga, lagunak?

(Julenek, hasieran zalantzati, azkenean eskua hartuko dio, baina gazteak besarkada emango dio. Julen aztoratuta.)

GAZTEA.- (Julenen aurpegi serioa ikusita.) Zer duk?

JULEN.- Ez, ezer ez. Besarkada...

GAZTEA.- A, barkatu, erresistentzian guztiok ematen zioagu elkarri. Batzuetan musu ere. Bazakiat jende guztiari ez zaiola gustatzen, baina ahaztu egiten zaidak hori.

JULEN.- Aspaldi ez nindian inork besarkatu.

GAZTEA.- (Ezin duela sinetsi Julenek dioena.) Txantxetan ari haiz, ala? Gurasoek besarkadak emateko ohitura ditek, ezta? Ez... ta? (Bat-batean esan duenaz oharturik, seguruenik hanka sartu duela konturatu da, eta gaiaz aldatzen saiatuko da.) Beno, beno, sekretu bat kontatuko diat, ados?

JULEN.- Sekretua? Bai... noski... ados.

GAZTEA.- Kontatuko diat baina ezin diok ezer esan Joeri. Zin egiten didak?

JULEN.- Baina, zergatik? Zer kontatu behar didak, ba?

GAZTEA.- Zin egiten didak, bai ala ez?

JULEN.- Ados, zin egiten diat.

GAZTEA.- Ni... ez diok ezer esango, ezta?

JULEN.- Jo, ezetz ba, esan behingoz.

GAZTEA.- Beno, hitaz fida naitekeela uste diat... hau nire azkeneko lapurreta izango duk, utziko zioat etxeetan indarrez sartzeari. (Julenen sinesgogor aurpegia ikusita.) Bai, benetan esaten diat. Nekatu nauk hau guztiaz, erresistentziaren ideiekin bat natorrek, hori ezin diat ukatu; baina ez zaidak gustatzen gauzak egiteko duten modua. Bide berriak jorratu beharko genituzkeela uste diat.

JULEN.- Eta zer egingo duk? Heure lapur enpresa sortu? Oso gaztea haiz. (Erdi barrezka.) Hemezortzi urte besterik ez.

GAZTEA.- (Irribarrea aurpegian duela.) Bidaiatu nahi diat, mundua ezagutu eta beste lekuetan gauzak nola egiten dituzten ikusi nahi diat. Mundua aldatu nahi badut, ongi ezagutu beharko diat, ez duk uste?

JULEN.- Hara, ez duk ideia txarra.

GAZTEA.- Bai, baina horretarako hemendik atera beharko diagu lehenbailehen. JULEN.- (Zalantza batzuk gainditu eta gero.) Konbentzitu nauk. Hemendik irteten lagunduko dizuet...

GAZTEA.- (Barrezka eta oihuka.) Oso ongi! Benetan eskertzen diat.

JULEN.- Eta nola egingo duk ondoren? Dirua beharko duk eta erresistentziatik alde egitea ez duk horren erraza izango.

GAZTEA.- (Berriz berera hitz egiten.) Hik esan bezala, ez badaukat dirurik ezingo diat alde egin eta beti geratu beharko diat hemen... eta...

JULEN.- Eta?

GAZTEA.- Hire gurasoek... beren logelan edo...

JULEN.- Zer? Zer esan nahi duk?

GAZTEA.- Aberatsak zarete eta pentsatu diat...

JULEN.- Ezta okurritu ere. Zer uste duk hik? Ez nauk tontoa.

GAZTEA.- Mesedez... lagunak ginela uste nian.

JULEN.- (Muturtuta.) Ez diagu apenas elkar ezagutzen.

GAZTEA.- Baina nire sekretua kontatu diat.

JULEN.- Eta zer? Nola dakit ez haizela engainatzen ari? Berriz ere. Zenbatetan erabiliko huen laguntasunaren trikimailua hire helburuak lortzeko.

GAZTEA.- Hori ez duk egia.

JULEN.- Edo ama bat behar duen haurraren papera edota gaztetxo galduarena. Lehen gezurretan ibili haiz, zergatik izan beharko luke orain egia?

GAZTEA.- Mundua aldatu nahi dudalako eta horretarako hire laguntza behar dudalako. JULEN.- Gezurtia halakoa.

GAZTEA.- (Aurpegia malkotan duela.) Min ematen ari haiz, munstroa naizela zirudik. Gaiztoa haiz benetan!

JULEN.- Hi haiz nire etxera bortxaz sartu dena, zer pentsatu behar diat ba.

GAZTEA.- (Negarrez jarraitzen du.) Eta hi hire bizitzan nahi duen guztia lortuko duen haurtxoa haiz. Hire gurasoen arreta izan ezik.

JULEN.- Hoa pikutara! Eskale zarpailtsu alaena!

(Isiltasuna.)

JULEN.- (Mukizapi bat emanez.) Hartzak. (Damututa oraingoan.) Barkazak, ez nian hori esan nahi.

GAZTEA.- Ez duk ezer, ni ere urduri jarri nauk.

(Isiltasuna.)

JULEN.- Besteen gustukoa ez izatea.

GAZTEA.- Barkatu?

JULEN.- Horren beldur nauk, besteen gustukoa ez izatearen beldur. Kaleak arriskutsuak izatea ez duk etxean geratzeko arrazoia, aitzakia baizik; ez nauk kalera irteten, jendearen gustukoa ez izatearen beldur naizelako. Neure buruaz barre egingo duten beldur edota baztertuko nauten beldur. Sarean gauzak errazagoak dituk, ez zagok lotsarik eta jendea jatorra duk, ezer eskatu gabe trukean.

GAZTEA.- Baina, benetako ezer eman gabe.

(Isilunea.)

JULEN.- Oso bakarrik sentitzen nauk, bai. Orain hik ere badakik nire sekretua.

(Isilunea.)

JULEN.- (Erabakia hartuta.) E... dirua nola lortu kontatuko diat.

GAZTEA.- Ez, ez duk beharrezkoa, ez dik inporta. Hemendik ateratzearekin nahikoa izango dugula uste diat.

JULEN.- Ez zaukaat ezer galtzekorik... espero diat ez damutzea.

GAZTEA.- (Pozik berriz ere.) Eskerrik asko. Ez haiz damutuko, zin degiat Julen.

JULEN.- Etxeko tramankulu teknologikoak eramatea ez dik merezi, balioa galtzen ditek estreinatu eta berehala. Begira Markel, gurasoek etxean dauzkaten baliozko gauza gehienak diru-kutxa zahar batean gordetzen ditiztek. (Burlati.) Nahiko antigoalekoak dituk aitona-amonak. Ez zakiat zehatz-mehatz zer egongo den bertan, ez diat aspaldi barrukoa ikusi, baina diru-birtuala egongo dela imajinatzen diat. Normalean, aitaren begiaren irisarekin edo amaren hatz markarekin irekitzen duk kutxa...

GAZTEA.- Jai diagu, orduan! Hire aitaren begia edo amaren hatza beharko genikek irekitzeko! Eta nik dakidala...

JULEN.- Lasai, normalean bai. Baina esan diadan bezala kutxa nahiko zaharra duk eta bazagok beste modu bat irekitzeko.

GAZTEA.- Esan, esan...

JULEN.- Hitaz fida naiteke?

GAZTEA.- Zin degiat.

JULEN.- Bai, ados. Kode sekretua dik... hauxe duk: D-I-R-U-A6565. Ongi ulertu duk? Nonbaiten idatziko diat.

GAZTEA.- Ez duk beharrezkoa, memoria ona zaukaat. Eskerrik asko, baina oraindik ez zakiagu nola atera gela honetatik.

JULEN.- Oso erraza. Gela batetik bestera joateko "burbuila" existitzen duk.

GAZTEA.- Zer? Burbuila?

JULEN.- Ez zakiat programa ezagutuko duan, baina etxe hauek diseinatu zituztenean gelaz gela komunikatzeko kapsula moduko batzuk sortu zitiztean. Bakarrik ez-ohiko egoeratan erabiltzekoak. Ez nizuen ezer esan behar, azkenean zaindaria etorriko zirelakoan, baina tratua egin dugunez...

GAZTEA.- Burbuila? Txantxetan ari haiz, ala?

JULEN.- Ezetz ba.

GAZTEA.- Eta non zagok kapsula edo burbuila hori?

JULEN.- Paretatik ateratzen duk, nik bi txalo jotakoan.

GAZTEA.- Bai, zera! (Sinesgogor, bi txalo jotzen ditu.) Ez duk ezer gertatzen. (Beste bi eta beste bi eta beste bi txalo joko ditu.) Ikusten? Ez badidak esaten hemendik nola atera, neure kabuz topatuko diat modua, besterik ez nian falta. (Pareta gardena aztertzen eta ukitzen hasiko da. Bere golkorako.) Material berezia duk, polikarbonato baten antza dik, baina garatuagoa...

JULEN.- Hire txaloekin ez duk ezer lortuko, ez diate nire txaloen frekuentzia bera eta. GAZTEA.- (Juleni harridura aurpegiz begiratzuz.) Hara! Zer esan nahi duk?

JULEN.- Begira ezak. (Julenek bi txalo joko ditu eta pareta ireki egingo da igogailu forma borobileko gelaxka bat sortuz.) Hemen duk.

GAZTEA.- (Kanpotik burbuila begiratzuz, begiak zabal-zabalik dituela.) Zoragarria. Ez nian sekula horrelakorik imajinatu.

JULEN.- Ez, ezta? Orain lehenbailehen alde egin behar duzue.

GAZTEA.- Zoragarria duk!

JULEN.- Bai, egia, asmakuntza bikaina larrialdietarako... baina berandu baino lehen hemendik atera behar duzue, frekuentzia eragozleak ez dik betiko funtzionamendua ziurtatzen. Denbora mugatua duzue.

GAZTEA.- Zoragarria duk!

JULEN.- Ene, zein astuna haizen!

GAZTEA.- (Mekanikoki.) Zoragarria duk! Zoragarria duk! Zoragarria duk!

JULEN.- Gogaikarria haiz gero.

GAZTEA.- Zo... ra... zo... ra... gga....rria.

JULEN.- Markel zer duk? Ongi al hago? (Gaztearen aurpegi arraroa ikusita.) Izutzen hasi nauk... Utz itzak txantxak!

(Gaztea isil-isilik eta geldirik geratuko da.)

IV

GAZTEA.- (Mekanikoki.) Zoragarria duk! Zoragarria duk! Zoragarria duk!

JULEN.- Gogaikarria haiz gero.

GAZTEA.- Zo... ra... zo... ra... gga....rria.

JULEN.- Markel zer duk? Ongi al hago? (Gaztearen aurpegi arraroa ikusita.) Izutzen hasi nauk... Utz itzak txantxak!

(Gaztea isil-isilik eta geldirik geratuko da. Une berean zaharraren belarrietatik aurikularrak desagertuko dira eta irribarretsu bi mutikoak begiratuko ditu. Orain arte astakiloa zirudien tipoaren keinua aldatu da: beste gizon bat dirudi, astakiloaren jarrera aldatu da eta gizon ikasia eta azkarra ematen du.) ZAHARRA.- (Bi mutikoak dauden lekura doa eta gazteari ilea laztantzen dio.) Primeran bete duzu lana, txikito.

JULEN.- Beste engainu bat, tonto hutsa nauk.

ZAHARRA.- Tonto samarra... bai.

JULEN.- (Gaztea seinalatuz.) Tipo ziztrin honek engainatu naik, neure konfiantza osoa eskaini eta... (Julen gaztea kolpatzera doa, baina zaharrak heldzen dio.) Utz nazak bakean, muturrekoa eman behar zioat.

ZAHARRA.- Lasai, lasai (Juleni alde batera bultzatuz.) Egon zaitetz lasai behingoz! Txikitok ez zaitu engainatu.

JULEN.- Gezur pila esan zidak eta!

ZAHARRA.- Hori ez da egia. Eta hitz egidazu errespetuz, mesedez.

JULEN.- (Aztoratuta.) Bai, barkatu Joe.

ZAHARRA.- Zuretzat, jauna.

JULEN.- (Ezer ulertu ezinik.) Bai, barkatu... jauna.

ZAHARRA.- Oso ongi, gaztetxo hauei ez dakit zer irakasten dieten eskoletan, helduei hitz egiten ere ez dakite. Garai batean hezkuntza egokia jasotzen genuen, bai, oraingoa ez bezalakoa. (Geldi-geldirik dagoen gaztearen aurpegia altxatuz.) Mukizu, lagun bat aurkeztu nahi dizut. MARKELXXXP31.

JULEN.- (Harridura ezin disimulatuz.) Robota!

ZAHARRA.- Hitz itsusia nire ustez, androide edota automata izena nahiago dugu. JULEN.- Benetako pertsona bat dirudi.

ZAHARRA.- Bai, ezta? (Irribarretsu.) Pozten naiz zuk ere gauza bera uste izatea, hori da helburuetako bat, eta argi dago lortu dugula. Baina, zoritxarrez oraindik prototipoa besterik ez da. Bateria kargatu gabe denbora luzean esna irautea kostatzen zaio; hala ere, kasu honetan geure helburuak lortzeko nahikoa izan dela uste dut. (Ahotsa jaitziz, Juleni sekretu bat kontatzera joango balitz bezala.) Gure artean, bateriarik behar ez duen MARKELXXXP32 sortzen ari gara momentu honetan.

JULEN.- (Ezin sinetsita dagoela oraindik.) Robota!

ZAHARRA.- Gezurrak esan ditzakeen makina, sentimenduak izan ditzakeena.

JULEN.- Mundua konkistatuko duen arraza berria. Dena gezurra eta nik robot baten hitz gezurtiak sinetsita, bere lagun bihurtu naizela sinetsita.

ZAHARRA.- Bai eta ez. MARKELXXXP31 edozein egoerataraz moldatzeko programatuta dago, zure lagun izan zitekeen haur baten itxura eta pentsamenduak instalatu dizkiogu, besterik ez. Baina berak ez daki, berak ez daki makina bat denik, berak 15 urteko gaztetxo dela uste du. Txikito ezizenaz ezaguna gure zientifiko taldearen artean. Istorio osoa sortzen dugu dena sinesgarriagoa izan dadin, Markelek berak sinesten badu, nola ez dute ba besteek sinestuko, bada. Hala ere, nik zuen elkarrizketa guztiak jarraitu ditut aurikularren bidez, bere gorputzera konektatuta dauden mekanismo batzuei esker. Badaezpada, badakizu.

JULEN.- Orduan, makinak esandakoa...

ZAHARRA.- Bai, benetan taldetik alde egin nahi duela uste du. Emozioak ditu eta aske izateko gogoia, baina hori guztia esateko programatuta dago. Berak esandako guztia gidoi hutsa da, talde oso batek lan egiten du horretan.

JULEN.- Eta nolatan mundu berri bat nahi duzuela aldarrikatzen duzuenok erabil ditzakezue horren estrategia zikinak, erresistentzia babesten duen jendea engainatzen ari zarete.

ZAHARRA.- Erresistentzia? Ze erresistentzia? Estatu globalarentzat lan egiten dugu, zientifiko talde handia gara.

JULEN.- Zientifikoak? Ezin dut ezer sinetsi. Hau amesgaiztoa da! Esnatu, Julen, esnatu zaitetz behingoz.

(Ume bat bezala purrustaka hasiko da, aurpegian zaplazteko batzuk emango dizkio bere buruari, baina ezer aldatu ez dela ikusita galderak egiten jarraituko du nekaezin.) JULEN.- Zertarako sartuko lirateke zientifiko batzuk jendearen etxeetan lapurtzera? Are gehiago estatu globalarentzat lan egiten baduzue, ezerk ez du zentzurik.

ZAHARRA.- Geure helburua ez da lapurreta, jendea beldurtzeko kontratatzen gaituzte; zenbat eta delitu gehiago egon, orduan eta babes polizial handiagoa eskatuko du jendeak. Jendartea kontrolatuagoa izango dugu modu honetan. Zure kasuan hainbat ezusteko jaso ditugu, espero ez genituen zenbait eragozpen, baina arazoa nahiko ongi kudeatu dugula uste dut. Markelen

benetako identitatea ezagutu aurretik hemendik nola atera eta zure gurasoen dirua nola lortu aitortu diguzu.

JULEN.- Eta zientifikoak lan hauetan... Zergatik ez du beste edonork egiten?

ZAHARRA.- Markelen prototipoa oraindik oso delikatua da, ezin du edonork maneiatu. JULEN.- Eta zertarako kendu nahi dio estatu globalak dirua jendeari? Dena sinesgaitza da, oso arraroa. Ez dut ulertzen.

ZAHARRA.- Esan bezala lapurreta ez da helburua; baina, bide batez, estatua aberasteko beste modu bat da. Gero eta aberatsagoa eta herria gero eta kontrolatuagoa. Berez, negozio handia egiten du poliziak atxilotuei konfiskatutako ordenagailuekin; gurea, etekinak lortzeko beste modu bat besterik ez da.

JULEN.- (Eskuak buruan dituela, begiak ireki-irekiak.) Eta erresistentziak zer egiten du? Ez du ezer egiten?

ZAHARRA.- Ez duk benetako erresistentziarik existitzen.

JULEN.- (Ezin sinetsita.) Baina egunero haien berri ematen dute telebistan eta ziberegunkarietan. (Zaharraren irribarre maltzurra ikusita.) Dena gezurra... Eta hemen gertatu dena kontatuko banu? Komunikabideetara joango banintz?

ZAHARRA.- Eta nork sinistuko luke?

(Isiltasuna.)

JULEN.- (Zurbil.) Mesedez, zoazte hemendik lehenbailehen, badakizue irteteko eta dirua lortzeko zer egin behar den.

ZAHARRA.- Bai, bai, baina aurretik txikitori bateria aldatu behar diot, ezinbestekoa da. (Apenas ikus daitekeen zer edo zer aterako du poltsikotik.) Eta nire lekura bueltatuko naiz, oraindik ez dakigu zer gerta daitekeen Markeltxok makina bat dela deskubritzen badu. Horiek jorratu beharreko hurrengo erronkak izango dira. Bateria bukatu aurretiko egoerara bueltatuko gara. Prest?

(Julenek sorbaldak altxatuz axolagabekeria adierazi nahi duen keinua egingo du, ez du jada ezer galtzeko.)

ZAHARRA.- Primeran, ba. (Une batez pentsatuz.) Badakizu? Etorkizun hurbil batean oso zientifiko ona izan ahal zarela uste dut, eta estatu globalarentzat lan egin, benetan esaten dizut.

(Zaharrak zerbait aldatuko du gaztearen bizkarrean eta bere lekura bueltatuko da, Markel buruan berriz laztandu ondoren. Gaztea hasieran mugimendu mekanikoak egin arren, azkenean lehengo egoerara bueltatuko da.)

GAZTEA.- Zoragarria duk!

V

ZAHARRA.- Bateria bukatu aurretiko egoerara bueltatuko gara. Prest?

(Julenek sorbaldak altxatuz axolagabekeria adierazi nahi duen keinua egiten du, ez du jada ezer galtzeko .)

ZAHARRA.- Primeran, ba. (Une batez pentsatuz.) Badakizu? Etorkizun hurbil batean oso zientifiko ona izan ahal zarela uste dut, eta estatu globalarentzat lan egin, benetan esaten dizut.

(Zaharrak zerbait aldatzen du gaztearen bizkarrean eta bere lekura bueltatuko da, Markel buruan berriz laztandu ondoren. Gaztea hasieran mugimendu mekanikoak egin arren, azkenean lehengo egoerara bueltatuko da.)

GAZTEA.- Zoragarria duk!

JULEN.- (Zurbil eta serio.) Bai, ezta?

GAZTEA.- Primeran. Baina nola funtzionatzen du honek?

JULEN.- Oso erraza duk, bertan sartu eta nire beste bi txaloei esker, etxeko beste puntan agertuko zarete derrepentean. Behar duzuen guztia hartu eta trankil-trankil atera ahalko zarete ate nagusitik, inork eragozpenik jarri gabe.

GAZTEA.- (Julen besarkatzera doala.) Eskerrik asko!

JULEN.- (Serio.) Ez mesedez, besarkadarik ez.

GAZTEA.- Nahi duana, orain disimulatu, Joe-k engainatu haudala uste behar dik. Itxurak egingo ditiagu, ados?

JULEN.- Nola ez.

GAZTEA.- (Zaharrari ahots ozenez.) Joe, lortu diat. Informazio guztia atera zioat. JULEN.- (Haserre ahotsa jarri nahian.) Txerri halakoak!

ZAHARRA.- (Pozaren pozez bere lekutik.) Oso ongi txikito!

GAZTEA.- (Juleni) Ez esan kontatu diadana, bai?

JULEN.- Zin degiat.

(Zaharra beraiengana hurbildu da.)

ZAHARRA.- Zer ari zarete sekretupean?

GAZTEA.- Ezertan ez, Joe. Poliziari ezer ez kontatzeko esan zioat, eskarmentua ematera etorriko gaituk bestela.

ZAHARRA.- Primeran, txikito. (Juleni begira.) Ziur nauk beteko duela promesa. (Gazteari.) Eta orain zer egin behar dugu?

GAZTEA.- Kapsula horretan sartuko gaituk hemendik ateratzeko eta bertan kontatuko diat beste guztia.

ZAHARRA.- Ongi duk.

(Zaharra kapsulan sartuko da eta gaztea sartzera doanean Julenek deituko du.) JULEN.- Michael!

GAZTEA.- (Bueltatuz.) Bai?

(Julenek besarkada emango dio.) JULEN.- Zaindu, zortea izan hire bidaiari. GAZTEA.- Bai, mundua aldatuko diagu. ZAHARRA.- Michael!

GAZTEA.- Bai... agur, Julen.

JULEN.- Agur, Markel.

(Gaztea zaharrarekin kapsulan sartuko da.) JULEN.- Prest?

ZAHARRA.- Bai, noski. Aurrera!

GAZTEA.- (Ukabila altxatuz.) Mundua aldatuko diagu!

JULEN.- Bai.

(Julenek bi txalo joko ditu eta dena kez betetzen hasiko da, ezer ez ikusi arte. Bakarrik ahotsak entzungo dira eta bat-batean sirena soinuak.)

ZAHARRA.- Hau normala al da? Ez gaituk mugitzen ari.

POLIZIAREN AHOTSA: Estatu globaleko polizia! Geldi hor!

GAZTEA.- Zer da hau? Engainatu egin nauk? Hiregan konfiantza osoa jarri eta gero... ZAHARRA.- Mukizu madarikatua! Ez duk ezer lortuko honekin eta badakik! Dena kontrolpean diagu.

JULEN.- (Bere buruari triste.) Egia duk, seguru asko ez diat ezer lortuko. Orain konturatu nauk.

GAZTEA.- Noiz deitu duk polizia?

JULEN.- (Zurbil eta egin duenaz damututa.) Burbuila erabiltzearekin batera, berehala beste alarma bat pizten duk.

POLIZIAREN AHOTSA.- Ixo! Ongi al zaude mutiko? Zerbait egin dizute?

JULEN.- Ez, ongi nago.

POLIZIA.- Zure ama berehala etortzekoa da. Guk hauek eraman behar ditugu. Ongi egongo zara?

JULEN.- Bai, zoazte, ongi egongo naiz.

VI

POLIZIAREN AHOTSA.- Ongi al zaude mutiko? Zerbait egin dizute?

JULEN.- Ez, ongi nago.

POLIZIA.- Zure ama berehala etortzekoa da. Guk hauek eraman behar ditugu. Ongi egongo zara?

JULEN.- Bai, zoazte, ongi egongo naiz.

(Hasierako fluoreszenteen argiak bueltatu dira eta kea pixkanaka-pixkanaka desagertuz joango da. Gela hasierako egoerara bueltatu da, ezer ez dela gertatu pentsatuko genuke lurrian hainbeste kable eta bandera zati egongo ez balira.)

JULEN.- (Ahopeka.) Nigan konfiantza osoa zuen.

(Julen ohean eserita dago, une horretan pantaila dir-dir egiten hasiko da.) JULEN.- (Pantailari begira, gogorik gabe.) PIZTU.

(Pantailan Maddiren aurpegia agertuko da.)

MADDI.- Julen, Julen, ongi al hago?

JULEN.- Baietz uste dinat.

MADDI.- Ziur?

JULEN.- Bai, bai.

MADDI.- Hau sustoa, txo! E, zeuen amak deitu zidak gertatzen dena kontatzeko, hire telefonoak ez omen dik seinalerik ematen. Berehala egongo duk han, trafiko ederra omen zagok bidean eta ez zaukak ailegatzerik.

JULEN.- (Ahopeka.) Beti bezala.

MADDI.- Zer? Barkatu, baina ez duk oso ongi entzuten.

JULEN.- Maddi, pentsatu dinat bideojokoa hirekin egingo dudala.

MADDI.- Lasai, txo, orain ez duk momentua horri buruz hitz egiteko.

JULEN.- Ez, benetan esaten dinat. Baina androideak onak izan behar ditun, ez gaiztoak hasieran marraztu bezala.

MADDI.- Ongi, hitz egingo diagu baina orain deskantsa ezak, bai?

JULEN.- Bai, arrazoa dun, ez naun konturatu orain arte, baina oso nekatua nagon. MADDI.- Bai, deskantsatu eta bihar kontatuko didak dena. Ze abenturak, e? Beno, agur. JULEN.- Maddi, itxoin.

MADDI.- Bai?

JULEN.- Maddi, traidore bat naizela uste al dun?

MADDI.- (Harrituta.) Zer? Bai gauza arraroak esaten dituala! Zer duk buru gogor horretan! Seguru ongi hagoela?

JULEN.- Zerbait egin behar dudala agindu dinat inoiz, eta gero ez dut egin?

MADDI.- (Txantxetan.) Etengabe. (Bere lagunaren aurpegi serioa ikusita.) Txantxetan ari nauk txotxolo! Sar hadi ohean oraintxe bertan, bihar hitz egingo diagu lasaiago. Bale? JULEN.- Bale.

MADDI.- Bihar arte, bonbon!

JULEN.- (Irribarre behartuaz.) Bai, bihar arte.

MADDI.- ITZALI.

(Maddiren irudia desagertuko da. Julen ohean sartuko da triste.) JULEN.- Mundua aldatuko diagu. ITZALI ARGIAK.

(Argiak itzaliko dira.)